



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko irailaren 15a

103. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-25/PES-00247. Galdera, jakiteko trantsizio ekologikoren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan 2024rako onetsitako aurrekontuaren zer portzentaje bete den gaur arte. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-25/PES-00248. Galdera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak baloratzeko eta horiei prestazioak emateko atzerapenak murrizteko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- 11-25/PES-00249. Galdera, etxeko laguntza-zerbitzuen eraginkortasuna ebaluatzeko sistemei eta horien inpaktua neurtzeko baliatzen diren adierazleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-25/PES-00250. Galdera, kalean lo egiten duen lau adingabeko familiaren egoera bideratzeko neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- 11-25/PES-00251. Galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeheri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-25/PES-00253. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeheri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00254. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen aurkako erasoei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- 11-25/PES-00255. Galdera, Foru Gobernuak Industria Ministerioarekin eta Ezkirozko BSHko enpresa-batzordearekin koordinatutako berrindustrializazio-mahaiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-25/PES-00256. Galdera, Beiren egin den "Eskola Aktiboak" jardunaldiari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- 11-25/PES-00257. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak ukitutako irakasleei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- 11-25/PES-00258. Galdera, gerrako biktimak hobitak atera, identifikatu era erreparatze aldera Nafarroak jaso dituen funtsen banaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).

- 11-25/PES-00259. Galdera, Aizkolegiko jauregian eta Bertizko Jaurreriko parke naturalean 2025ean egindako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- 11-25/PES-00260. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroan izandako gertakariari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00261. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren kudeaketari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- 11-25/PES-00262. Galdera, Historia Sozial Bakarrari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- 11-25/PES-00263. Galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egiteko arrazoiei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).
- 11-25/PES-00264. Galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egin izanak utzitako hutsunea betetzeko ekintzei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-25/PES-00265. Galdera, pasa den ekainaren 13an Foruzaingoak Martzillako adingabeentzako behaketa eta harrera zentroko adingabeak lekualdatzerakoan izandako jokabideari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- 11-25/PES-00266. Galdera, 11-24/MOC-00140 espedientean onetsitako mozioan jasotako Kulturako lanbideen lege-proiektuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- 11-25/PES-00267. Galdera, Kanariar Uharteetan dauden bidaidetik gabeko adingabeen banaketaren gaineko komunikazioei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-25/PES-00268. Galdera, 2015-2019 legegintzaldian Gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek Antxon Alonso Egurrolarekin izandako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (28. or.).
- 11-25/PES-00269. Galdera, 2015etik 2021era bitartean Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideek Accionak Nafarroan eta Errioxan zuen ordezkari Fernando Merino jaunarekin izandako bilerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (32. or.).
- 11-25/PES-00270. Galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua arabera tokiko parte-hartzea eskaini duten energia berriztagarrien proiektuei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (35. or.).
- 11-25/PES-00271. Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek Zeroa Multimedia merkataritza-sozietateari emandako abal eta maileguen arrisku biziaren egungo zenbatekoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (37. or.).
- 11-25/PES-00272. Galdera, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko azpiegiturei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (38. or.).
- 11-25/PES-00273. Galdera, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa eta Lehen Hezkuntza egitera Orbaibartik Tafallara joaten diren ikasleen joan-etorriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (42. or.).
- 11-25/PES-00274. Galdera, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko zerbitzu osagarriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (44. or.).

F saila:
GALDERAK

11-25/PES-00247. Galdera, jakiteko trantsizio ekologikoren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan 2024rako onetsitako aurrekontuaren zer portzentaje bete den gaur arte**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betetz, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera, jakiteko trantsizio ekologikoren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan 2024rako onetsitako aurrekontuaren zer portzentaje bete den gaur arte, 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 18

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna

Atxiki gabeko foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-25/PES-00247):

2024rako trantsizio ekologikoaren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan onartutako aurrekontuaren zer ehuneko gauzatu da jada gaur egun, eta zer partida zehatzetan gertatzen ari dira atzerapen esanguratsuak?

Bada, Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Oinarrizko laguntzako gizarte-zerbitzuen 901003 91600 4609 231502 aurrekontuko partidatik % 55,46 exekutatu da (13.261.023,81 euro), 23.932.000,00 euroko guztizko aurrekontutik.

Ez dago exekuzio-aurreikuspenaren gaineko atzerapenik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 4an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariaren erantzuna

Atxiki gabeko foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-25/PES-00247 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Bada, Nafarroako Gobernuo Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Galdera: 2025erako trantsizio ekologikoaren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan onartutako aurrekontuaren zer ehuneko gauzatu da jada gaur egun, eta zer partida zehatzetan gertatzen ari dira atzerapen esanguratsuak?

Eginiko kontsultari dagokionez, jakinarazten dut gaur arte 2025eko ekitaldiari dagokion aurrekontuaren % 35,43 exekutatu dela. Nolanahi ere, aurrekontu osoaren % 90 konprometitu da; hala bada, baimenduriko eta xedaturiko gastua % 70 da guti goiti-beheiti. Datu positibotzat jotzen da, kontuan harturik aurrekontu-ekitaldiaren erdian gaudela.

Halaber, aurrekontuko partida bakar batean ere ez da atzerapen adierazgarririk ikusi.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 1ean

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna

Atxiki gabeko foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak idatziz erantzuteko 11-25/PES-00247 galdera egin du 2024rako trantsizio ekologikoaren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan onarturiko aurrekontuaren ehunekoari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuako Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako

Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galderari erantzunez:

2024rako trantsizio ekologikoaren, etxebizitzaren eta gizarte-zerbitzuen arloan onartutako aurrekontuaren zer ehuneko gauzatu da jada gaur egun, eta zer partida zehatzetan gertatzen ari dira atzerapen esanguratsuak?

Trantsizio Energetikoaren Zerbitzuaren datua hau da: % 84,53.

Ez dago atzerapen adierazgarririk.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00248. Galdera, mendekotasun-egoeran dauden pertsonak baloratzeko eta horiei prestazioak emateko atzerapenak murrizteko neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak mendekotasun-egoeran dauden pertsonak baloratzeko eta horiei prestazioak emateko atzerapenak murrizteko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 15ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari M^a Teresa Nosti Izquierdo andreak galdera hau (11-25/PES-00248) egin du, idatziz erantzun dakion:

Zer ekintza zehatz egiten ari dira mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzako prestazioak baloratu eta ematean izaten diren atzerapenak murrizteko?

Bada, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kon-

tseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Azken sei hilabeteetan zehar batez besteko balorazio-denbora murrizten joan da, martxoan 4,47 hilabetekoa izatetik ekainean 3,85 hilabetekoa izatera. Eskatera guztietarako batez besteko balorazio-denbora (hasierakoak nahiz berrikuspena) 3,65 hilabetekoa da gaur egun. Hala eta guztiz ere, mendekotasuna baloratzen denetik prestazioak eman arte batez beste igarotzen den denbora 6 hilabetetik beheitikoa da oraindik (mendekotasunik gabeko pertsonentzako prestazioak eta zerbitzuak sartzen dira batezbestekoaren barruan); gaur egun 4,95 hilabetekoa da.

Urtearen hasieratik indartu egin da mendekotasuna baloratzeko langileen atala: lehenik, lanaldi erdia gehitu da, eta berrantolatu egin dira baloratzeko ataleko langileen eginkizunak, eta martxotik aitzina, lanaldi osoko beste profesional bat kontratatu da, balorazio kopurua handitzeko. Irailetik aitzina, profesional bakoitzak egin beharreko balorazioen kopurua ere handituko da, astean 18 balorazio izatetik 20 izatera.

Horrekin batera, plataforma informatikoa aldatzen ari da, balorazioak etxeetatik bertatik erregistratu ahal izateko profesionalen lana errazte aldera.

Era berean, prestazio-aldaketak sinplifikatuko dituzten aldaketa informatikoak ere bukatzen ari dira (hurbiltasuneko prestazioak eskatzen dituztenentzat), eta horrek epeak murritzeta ekarriko du, batik bat prestazioen aldaketa eskatzen duten pertsonentzat.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 15ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00249. Galdera, etxeko laguntza-zerbitzuen eraginkortasuna ebaluatzeko sistemai eta horien inpaktua neurtzeko baliatzen diren adierazleei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak etxeko laguntza-zerbitzuen eraginkortasuna ebaluatzeko sistemai eta horien inpaktua neurtzeko baliatzen diren adierazleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak galdera hau (11-25/PES-00249) egin du, idatziz erantzun dakion:

Nola ari da ebaluatzen etxeko arreta-zerbitzuen eraginkortasuna eta zer adierazle erabiltzen dira haien eragina neurtzeko?

Bada, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kon-

tseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Etxeko arreta-zerbitzua udal-zerbitzua da, eta prestazio tekniko modura egituraturik dago Autonomia Pertsonala Sustatzeko eta Mendetasun-egoean dauden Pertsonak Zaintzeko Programaren barruan, halaxe jasota dago, izan ere, uztailaren 15eko 48/2020 Foru Dekretuan, oinarritzko gizarte zerbitzuen oinarritzko programak eta finantzaketa sistema arautzekoan.

Ildo horretatik, eta udal-eskumenaren barruan, toki-entitateek beren ebaluazioak egiten ahal dituzte.

Departamentu honek zerbitzuaren urteko ebaluazioa monitorizatzen du jarduera-datuei, intentsitateari eta finantzaketari dagokienez. Datuak Nafarroako Gizarte Dokumentazioaren Zentroan argitaratzen dira:

<https://centrodocumentacionsocial.navarra.es/eu/w/grafico/personas-atendidas-en-los-servicios-sociales-de-base?pageBackId=7576759&back=true>

Hauek dira jasotako adierazleak:

Indicador

- Número de personas atendidas
- Tasa de personas atendidas (%)
- Número de horas prestadas
- Número de horas prestadas por persona atendida

Grado de dependencia

- Dependiente Moderado
- Dependiente Severo
- Gran Dependiente
- No Dependiente/Sin Valoración
- Total

Sexo

- Ambos sexos
- Hombres
- Mujeres

Grupos de edad

- <18 años
- 18-64 años
- 65-79 años
- 80 y más años
- Total

Gainera, datuak Eskubide Sozialetako eta 2030erako Agendako Ministerioari helarazten zaizkio SISAAD sistemaren bitartez, eta iturri gisa balio dute sistemaren magnitude nagusien estatistikak egiteko. Hilean behin, Mendekotasunaren Atariaren orrian argitaratzen dira (Imersoren webgunean). Datuak azterketa ugari egiteko erabiltzen dira, baita urtero DEC Indizea egiteko ere.

Era berean, Errealitate Sozialaren Behatokiak dokumentu hau egin zuen 2023an: Iraupen luzeko zainketak Nafarroan. Etorkizuneko sistema eraikitzeke 5 ardatz, Nafarroan bizi diren adineko pertsonen beharrak eta eskaerak ezagutu nahi zituen azterlan baten emaitza gisa. <https://centrodocumentacionsocial.navarra.es/eu/web/centro-documentacion-social/lehen-mailako-arreta>

Inkesta bat egin zaie, orobat, Nafarroako 65 urtetik goitiko adineko pertsoneri, eta bertan Etxez Etxeko Arreta Zerbitzua aipatzen zen. Hona hemen emaitzen txostenerako esteka: <https://analisisyprospectiva.navarra.es/eu/-/encuesta-a-personas-mayores-de-65-a%C3%B1os-en-navarra?pageBackId=7574452&back=true>

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 18an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia

Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00250. Galdera, kalean lo egiten duen lau adingabeko familieren egoera bideratzeko neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak kalean lo egiten duen lau adingabeko familiaren egoera bideratzeko neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-25/PES-00250 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen galdera hori:

Jakinarazi denaren arabera, lau adingabeko familia bat gaur egun Iruñeko kalean lo egiten ari da. Baloratu al da familia horren egoerari irtenbidea emateko premiazko neurriak hartzeko aukera?

Bada, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Galderari dagokionez, adierazi behar dut tokititateen esku dagoela gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsoneri presako harrera eta berehalako arreta ematea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 26. artikulua aplikatuz, eta Departamentuaren esku dago, berriz, adingabeei arreta ematea adingabeen egoera edo arriskurik antzeman eta jakinaraziz gero.

Adierazi behar dut, orobat, Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua Iruñeko Udalarekin batera lan egiten ari dela egoera horiei heltze aldera, eta, ildo horretatik, dauden baliabide arruntetarako finantzaketa aragotu da, hala nola aterpetxeetarako. Horrez gain, profil horientzako baliabideak sortu eta sendotzeko egitasmoak finantzatu dira, ETXE BAT Programa kasu (Housing Led).

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 4an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00251. Galdera, Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeheri buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 57/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeheri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak 11-25/PES-00251 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Bada, Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut galderari erantzunez. Hona hemen galdera:

– Zenbat irakasleri eraginen die Foru Agindu berriak?

Une honetan ez da jakiten ahal Foru Aginduen aplikazioak zenbat irakasle ukituko dituen, ikastetxeetako plantillen azken konfigurazioaren mende egonen baita. Aintzat harturik 57/2024 Foru Aginduak ezarritakoa, batez ere 5. artikuluan xedaturikoa, ez da ondorioztatzen ahal gorputz hezkuntzaren eta/edo musikaren irakasgaiak hizkuntzen programatik kanpo daudenik. Zergatik utzi nahi ditu Hezkuntza Departamentuak Ikastetxeetako Hizkuntza Planetatik kanpo?

Galderan aipaturiko artikulua honako hau xedatzen du:

«5. artikulua. Ordu banaketa.

1. Haur Hezkuntzako bigarren ziklorako eta Lehen Hezkuntzarako oro har ezarritako indarreko araudiaren arabera banatuko dira arloak kurtso edo ikasturteetan, bai eta haien ordutegiak ere; halaber, ikasleen gaitasunak garatzera bideratuta egonen dira.

2. Curriculuma atzerriko hizkuntzetan emateko, ordutegi banaketa honi jarraituko zaio astean zehar:

ETAPA	SESIONES EN LENGUA EXTRANJERA	
	MODELO A/G	MODELO D
2.º ciclo Educación Infantil	6-12	1.º curso: 0-6 2.º y 3.º curso: 4-6
Educación Primaria	7-12	7-12

3. Haur Hezkuntzako bigarren zikloan modu globalizatuan irakatsiko dira arlo guztietako edukiak ingelesez, frantsesez edo alemanez.

4. Lehen Hezkuntzan, 2. puntuan ezarritako gutxieneko saio kopurura iristeko, ingelesez, frantsesez edo alemanez emanen dira, orokorrean, arlo hauetako edukiak:

- Atzerriko Hizkuntza.
- Curriculuma Atzerriko Hizkuntzan.

- Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezagutza; honela banatzeko aukera ere badago: batetik, Natur Zientziak; bestetik, Gizarte Zientziak.

5. Curriculuma atzerriko hizkuntzan osatzeko saioak atzerriko hizkuntzako edukiak indartzera bideratzen ahal dira, baina atzerriko hizkuntzan emateko aukeratzen den beste edozein irakasgaitakoak indartzeko ere baliatzen ahal dira.

6. Ikasketaren xedeko atzerriko hizkuntza frantsesa edo alemana denean, aurretik ezarritakoaz gain, astean gehienez ere 5 saio ingelesez ematea aukeratzen ahalko da; betiere, atzerriko hizkuntzan ematen diren saioek ez dute, orokorrean, asteko irakastorduen erdia gaitutuko.

7. 2. puntuan xedatutakoa alde batera utzi gabe, atzerriko hizkuntzetan emateko saioen kopuru jakin bat eman nahi duten ikastetxe publi-

koek eta itunpeko ikastetxe pribatuek hizkuntza gaietan eskumena duen zerbitzuaren baimenaren bidez ematen ahalko dituzte saio horiek, hezkuntza ikuskaritzaren arloan eskumena duen zerbitzuak aldeko txostena eman ondotik, betiere itunpeko ikastetxe pribatuen kasuan hezkuntza ituna aldatzen ez bada, eta, ikastetxe publikoen kasuan, Hezkuntza Departamentuak beharrezkotzat jotako baliabideak ematen baditu.

8. 4. puntuan adierazitakoez gain, beste arlo batzuk ere atzerriko hizkuntzetan eman nahi dituzten ikastetxeek hizkuntza gaietan eskumena duen zerbitzuaren baimenaren mediotz egiten ahalko dute hori, hezkuntza ikuskaritzaren arloan eskumena duen zerbitzuak aldeko txostena eman ondotik betiere.

9. Curriculumuma atzerriko hizkuntzetan emateko asteko ordu banaketa koherentzia pedagogikoarekin egin behar da kurtsoen artean, eta egonkor mantendu behar da ziklo bakoitzean. Hala, aldaketak ikasturte bakoitzaren hasieran bakarrik egiten ahalko dira, eta ikastetxeko hizkuntza proiektuak ezartzen duenari jarraikiz betiere».

Aipaturiko irakasgaiak ikastetxeetako hizkuntza-planetan gehitzen ahalko dira, baldin eta, ikastetxeko plantillan aski langile funtzionario badaude irakasgaiak emateko dagokion hizkuntza-profilarekin definituriko plantilla organikoko plaza bateko behin betiko destinoarekin.

– 2022ko egonkortze-prozesuan, zenbait irakaslek gorputz hezkuntzan eta musikan lortu zituzten atzerriko hizkuntzaren profileko plazak. Dirudienez, profilik gabeko plazak izanen dira orain, baina gorputz hezkuntzan badaude beste hainbat irakasle behin betiko destinorik oraindik ez dutenak. Zer egiten dute orain? Zeintzuk izanen dira irizpideak lekualdatze lehiaketarako? Zeintzuk izanen dira lehentasuna izanen dutenak destinoa lortzeko?

Ez da hitz egiten ahal, hertsiki, irizpideez, izan ere, lekualdatze lehiaketaren araudian bertan arautzen da mugikortasuna, eta haren arabera, behin betiko lehen destinoa lortu ez duten langileek lekualdatze lehiaketetan parte hartu behar dute, harik eta hautatze prozesua gainditu zuten espezialitatean destinoa lortzen duten arte; lehen destino hori jada lortu badute, titular diren espezialitate guztietan parte hartu beharko dute.

Parte-hartzaile bakoitzari dagokion puntuazioak ematen du destinoa lortzeko lehentasuna, lekualdatze lehiaketan baremoa aplikaturik.

– Zer gertatuko da oposizioa-lehiaketan parte hartu eta gero Gorputz Hezkuntzako ingeleseko zerrendetan dauden maisu-maistrekin? Horietako asko lehentasunezko zerrendan daude oposizioa gainditu zutelako. Baina beste zerrenda bat dago, zeinetan ingelesa ez den eskatzen. Bertan ere lehentasunezko zerrendan jende anitz dago. Bi zerrendak mantenduko dira? Zerrendak bateratuko dira? Zein irizpiderekin?

Bi zerrendak mantenduko dira.

– Zer asmo dago bi espezialitate horietako aldi baterako kontratazio-zerrendan dauden irakasleekin? Bai plazarik gabeko gaindituen lehentasunezko zerrendan daudenean, bai hautaketa-prozesutik aukeratuak izan ziren gainerakoekin. Hemendik aurrera ingelesez ordu gehiago eman beharko direnez (Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen ezagutzan), atzerriko hizkuntzetan profilik ez duten irakasle batzuk lekualdatuak izan beharko dira. Zenbat izanen dira? Zer asmo dago langile horiei dagokienez?

Zerrendak mantendurik, espezialitateetan sortzen diren kontratazio-beharrak eskainiko zaizkie zerrendako langile izangaiei. Foru Agindua aplikatzearen ondorioz espezialitate batzuetan edo beste batzuetan izaten diren irakastorduen aldaketek kontratazioa handitzea ekarriko dute batzuetan, eta gutxitzea beste batzuetan, baina une honetan ez da zehazten ahal zenbat pertsona diren. Nolanahi ere, kontratatutako langileak ez dira «lekualdatzen», baizik eta, espezialitateetan sortzen diren beharren arabera, batzuetan edo beste batzuetan kontratatzen direla.

– Hezkuntza Departamentua elkarlanean ari al da ikastetxeetako zuzendaritzekin Foru Agindu hori betetzeak ekarriko dituen gorabeherak lantzeko?

Hezkuntza Departamentua, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuaren eta Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuaren bitartez, erantzuten ari zaizkie ikastetxeek foru aginduaren aplikazioari buruz eta ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-planaren gainean dituen ondorioei buruz eginitako argibide-eskaerei eta kontsultei.

Iruñean, 2025eko uztailaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00253. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeherari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak eragindako gorabeherari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak aurkeztutako 11-25-PES-00253 galdera idatziari dagokionez, Hezkuntzako kontseilariak honako informazio hau ematen du:

Hezkuntza Departamentua, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuaren eta Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuaren bitartez, erantzuten ari zaizkie ikastetxeek foru aginduaren aplikazioari buruz eta ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-planaren gainean dituen ondorioei buruz eginiko argibide-eskaerei eta kontsultei.

Arloen araberrako curriculum antolamenduak 58/2024 Foru Agindua betetzearekin izan lezakeen bateraezintasunari dagokionez, Hezkuntza Departamentuaren iritziz ez dago halako bateraezintasunik.

Iruñean, 2025eko uztailaren 16an.

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00254. Galdera, Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen aurkako erasoei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Nafarroako Osasun Zerbitzuko profesionalen aurkako erasoei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna

Atxiki gabeko foru parlamentari eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, Nafarroako Gobernuari 11-25/PES-00254 galdera egin dio, idatziz erantzun dakion. Bada, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, nire esku-menen barruan, honako hau jakinarazten dut eginiko galderari erantzunez:

Osasun-etxe edo ospitale-unitate hauek dituzte gaur egun segurtasun fisikoko langileak eta/edo bideozaintzako sistemak:

– NOU Iruñeko esparrua

- Ubarmin Klinika
- Iruñeko San Frantzisko Xabier Ospitale Psikiatrikoa
- Tuterako Reina Sofía Ospitalea
- Lizarrako García Orcoyen Ospitalea
- Tuterako osasun-etxea / Larrialdiak
- Oliveto Kondea Zentroa
- Iruñeko San Martin Dk. Ospitalez Kanpoko Larrialdi Zerbitzuak

- Buztintxuriko osasun-etxea

Osasun-etxe hauek dituzte bidezaintzako sistemak:

- Elizondoko osasun-etxea
- Lizarrako osasun-etxea
- Berriozarko osasun-etxea
- Arrotxapeko osasun-etxea
- Lezkairuko osasun-etxea

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: M^a Amparo López Antelo

Osasuneko kontseilariaren erantzuna

Atxiki gabeko foru parlamentari eta Nafarroako Gorteetako kide den María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-2/PES-00254 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, profesional sanitarioen kontrako erasoer eta harturiko neurriei buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galderari erantzunez:

1) Osasun arloko profesionalen aurka 2021ean, 2022an, 2023an eta 2024an izan diren erasoen kopuru osoa, honela xehakaturik: urtea, eraso mota, eraso jaso duen profesionalaren sexua eta kategoria profesionala, laguntza-esparrua eta eraso zer osasun-zentrotan gertatu zen.

KANPOKO ERASOAK OSASUNBIDEA-NAFARROAKO OSASUN ZERBITZUAN

SAILKAPENA	2021	2022	2023	2024
SEXUA				
Emakumezkoa	402	480	542	617
Gizonezkoa	90	108	105	138
ADIN TARTEAK				
< 35	120	118	103	155
35-55	274	326	371	441
> 55	98	144	173	159
LAGUNTZA EREMUA				
Ospitaleko arreta	283	267	285	381
Lehen Mailako Arreta eta Ospitalez kanpoko	209	321	362	374
LANBIDE KATEGORIA				
Medikuak	121	143	164	183
Erizaintza	169	167	199	230
Erizaintzako zainketa lagungarrietako teknikaria	88	108	111	159
Zeladore	13	10	12	15
Administraria	93	136	129	138
Beste batzuk	8	24	32	30
ERASO MOTA				
Eraso fisikoak	104	128	130	176
Eraso ez-fisikoak	388	460	517	579
ERASOAREN TOKIA				
Kontsultak	196	113	92	162
Helbidea / Bide publikoa	15	10	6	13
Larrialdiak	24	67	35	57
Osasun mentala / Psikiatriako unitateak	58	86	117	101
Ospitalizazioa	96	140	321	275
Harrera / Informazio gunea	97	116	56	97
Telefonoa	6	56	20	50
ERASOAREN ZENTROAK				
OSASUN MENTALA	35	97	121	189
LEHEN MAILAKO ARRETA	211	272	303	285
GARCÍA ORCOYEN OSPITALEA	7	4	10	13
REINA SOFÍA OSPITALEA	53	39	33	50
NAFARROAKO OSPITALE UNIBERTSITARIOA	185	175	179	218
ZERBITZU ZENTRALAK	1	1	1	0
GUZTIRA	492	588	647	755

2) Zer jarduketa-protokolo daude indarrean O-NOZen, profesionalen aurkako erasoak prebenitzeko, detektatzeko eta egoera horietan jarduteko?

“Gertakariak jakinarazteko eta ikertzeko prozedura”ren barruan, 4. eranskinean, “Kanpoko erasoen aurkako jarduketa-protokoloa” ezartzen da..

3) Zenbat osasun-zentro edo ospitale-unitatek dituzte gaur egun segurtasun fisikoko langileak eta/edo bideozaintzako sistemak?

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak jakinarazten du segurtasuna eta bideozaintza dituzten zentroyen zerrenda.

4) Zer laguntza-neurri eskaintzen zaizkie eraso jasaten duten profesionali? Zenbat pertsonak erabili dituzte baliabide horiek 2021etik gaur arte?

O-NOZek honako laguntza-neurri hauek ditu kanpoko erasorik jasaten duten profesionali laguntzeko:

1. Laguntza psikologikoa: O-NOZeko Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzua kanpoko erasorik jakinarazi duten pertsona guztiekin jartzen da harremanetan, eta lehen sorospen psikologikoen lehen arreta ematen da. Kasu bakoitzean, zernolako gertakariak diren, egin beharreko esku-hartzearen irismena zehazten da. 2024an, arreta 755 pertsonari eman zitzaizen, eta LAAHZko psikologoek 201 pertsonari jarraipena egin diete.

2. Laguntza sanitario espezializatua: Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak kanpoko eraso fisiko guztien berri emanen dio Mutua Navarrari, datuak babesteko behar diren bermeak dituen plataformaren bitartez, pertsonak arreta sanitariorik beharko balu ere. Mutua Navarrara bideratzen dira, orobat, inpaktu handiko kanpoko eraso ez-fisikoak jasan dituzten pertsona guztiak, behar den laguntza psikologikoa eman diezaieten. 2024an, arreta hori sei profesionalak behar izan dute.

3. Lege-aholkularitza: O-NOZeko Langileriaren eta Lan Harremanen Zuzendariordetzak ematen du eraso jasandako pertsonarendako lege-aholkularitza. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko Departamentuko Aholkularitza Juridikoak ematen ditu ordezkartza eta lege-laguntza, O-NOZeko Langileriaren eta Lan Harremanen Zuzendariordetzak eskaturik. O-NOZeko Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak lege-aholkularitzaren eskaera hauek bideratu ditu 2024an: 22, lege-aholkularitzarekin, eta 5, laguntza juridikoarekin.

4. Erasotzailea baztertzeko gutuna: Gerentziei eskatu zaie erasotzaileari gaitzeste-gutunak igortzeko. 2024an 119 gutun igorri dira.

5. Polizia Solaskide Sanitarioaren (PSS) laguntza: PSSen esku-hartzea arrazoi hauengatik eskatzen da gehienbat:

- Prebentziozko presentzia erasorik izateko arrisku handia susmatuta O-NOZeko eremu guztietan (Lehen Mailako Arreta, Osasun mentala eta ospitaleko esparruak).

- Langileek laguntza eta aholkularitza ematea kanpoko erasoaren ondotik, kasu gehienetan langileak berak eskaturik.

- Laguntza salaketan eta salaketak hartzen.

- Erasotzailearen eta langile sanitarioen arteko bitartekaritza-lanak.

Laguntza-eskaerak baliteke zuzenean iristea Polizia Solaskide Sanitarioari, edo Nafarroako Foruzaingoaren Aginte eta Koordinazio Zentroaren (112) bitartez. Eskariari kasu egiteaz gain, honako prebentzio-lan hau egiten da:

- Foruzaingoaren Prebentziorako eta Herritarren Arretarako Dibisioak patruilak egiten ditu egunero NOUko larrialdietan goiz, arratsalde eta gaueko hiru txandetan. Ordu-tegiak egokitu egiten dira Polizia Solaskide Sanitarioak Zuzendari-tzarekin eginiko bileretan (2-3 urtean).

- Esku hartzeko Dibisioko kideak egunero ibiltzen dira NOUko larrialdietan goiz eta arratsaldeko txandetan.

- Patruilak egiten dituzte NOUko esparruan, arreta berezia paraturik Amatasuneko Larrialdietan, eta zerbitzuak egiten dituzte barnealdean kaleko jantzirik.

- Polizia Solaskide Sanitarioak koordinazioa izaten du NOUko Osasun Mentaleko Zuzendari-tzarekin eta Ospitalizazio Psikiatrikoaren Unitateetako zerbitzuburuarekin, historia gatazkatsua duten pazienteei arreta ematen dieten profesionalendako laguntza koordinatzeko.

- Osasun-etxeetan patruilak egiten dituzte, eta, batez ere, erantzun egiten zaie polizia (uniformearekin / kaleko jantzirik) hartaratzeko eskaerei, historia gatazkatsua duten pazienteekin zitak daudelarik.

- Osasun-etxeek eskatu gabeko patruilak programatzen dira, poliziak ezagutzen dituen arriskuen arabera; azken urtean babes-zerbitzuak egin dituzte, batez ere arratsaldetan, Ermitagaña, Donibane, Arrosadia eta Arrotxapeko osasun-etxeetan.

6. Eraso gertatuz gero laguntza eskatzeko sarea: segurtasun-botoidun gailu fisikoak daude, eskumuturreko, lepoko edo sakagailu finko modura, unitate hauetako postuetan:

- NOUko larrialdiak.
- Ospitalizazio Psikiatrikoaren Unitateak (dau den hiruretan).
- San Frantzisko Xabierkoa zentroa.

SOS bezeroa segurtasun-botoia ezarrita dago Lehen Mailako zentro, SUOAZ, osasun mentaleko zentro eta ospitaleetako harreragune guztietako ekipamendu informatikoetan. Gainera, gure ospitaleetan hala eskatu duten zerbitzu guztietan ezarri da, kontraturiko zaintza-zerbitzuaren osagarri. Hauetan, besteak beste:

- NOU-A Onkologia Erradioterapikoa, J Behea eta B Behea pabiloiak.
- NOU-A Eguneko Ospitalea, Zuria pabiloia.

- NOU-A Pabiloi Zuria.
 - NOU-A Kontsulta infekziosoak eta Oftalmologia.
 - RSO Digestio-kontsultak.
 - RSO Traumatologia-kontsultak.
 - RSO Nefrologia-kontsultak.
 - GOO Kanpo kontsultak.
 - GOO Larrialdiak.
 - OKLZ San Martin.
 - San Martin Zentroa, 2. solairuko kontsultak.
 - NOU-KO LARRIALDIAK.
 - NOUko Errehabilitazio Zerbitzua.
 - San Frantzisko Xabierkoa zentroa.
7. Prebentzioko saioak eta tailerrak.

FORMACIONES EN ÁREA PSICOSOCIAL Y BIENESTAR	Nº personas formadas por año				
	Título de curso	2021	2022	2023	2024
SESION FORMATIVA GESTION EMOCIONAL Y PROCEDIMIENTOS DE AGRESIONES (SPRL)	7				
TALLER DE ANALISIS DE LAS AGRESIONES	19				
PREVENCIÓN Y MANEJO DE LAS AGRESIONES EXTERNAS			52	99	
Protocolo de actuación ante Agresiones Externas			16	22	
FUNCIONES DEL INTERLOCUTOR POLICIAL SANITARIO			7		
AUTOPROTECCIÓN EN SITUACIONES CONFLICTIVAS	8				
CONTENCIÓN FÍSICA Y AUTOPROTECCIÓN		71	24	79	
CONTENCIÓN FÍSICA Y AUTOPROTECCIÓN CON CASOS PRÁCTICOS			6		
CONTENCIÓN FÍSICA Y AUTOPROTECCIÓN (Nivel II)				25	
Contención Física para profesionales del Centro San Francisco Javier	7				
Subtotal	41	71	105	225	
Mejora del Trabajo en equipo	21	23			
TALLER ESPECÍFICO DE TRABAJO EN EQUIPO			12		
TRABAJO EN EQUIPO			25	11	
HABILIDADES PARA LA RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS		31			
HABILIDADES PARA LA RESOLUCIÓN DE CONFLICTOS CON CASOS PRÁCTICOS			25	47	
Relaciones interpersonales				9	
TALLER PRACTICO PARA LA GESTION Y RESOLUCION DE PROBLEMAS EN LOS EQUIPOS DE TRABAJO			21	86	
COMPETENCIAS CONVERSACIONALES Y RESOLUCION DE CONFLICTOS		21			
Subtotal	21	75	83	153	
Procedimientos básicos de Actuación para Jue's (HGO)	12		4		
Procedimientos básicos de actuación en materia de PRL para JUES (Quirófano)			12		
RIESGOS Y MEDIDAS PREVENTIVAS EN PUESTOS DE COCINA		21			
FORMACIÓN E INFORMACIÓN DE RIESGOS Y MEDIDAS DE PREVENCIÓN EN EL PUESTO DE TRABAJO (EVALUACIÓN DE RIE			36		
Procedimientos básicos de Actuación para Jefaturas de Unidad de Enfermería (JUE) - (Parte sanitaria)				8	
FORMACIÓN E INFORMACIÓN DE RIESGOS Y MEDIDAS DE PREVENCIÓN EN EL PUESTO DE TRABAJO (EVALUACIÓN DE RI				12	
PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES Y HERRAMIENTAS PARA PACIENTE PSIQUIÁTRICO				73	
INFORMACION SOBRE LA EVALUACION DE RIESGOS PSICOSOCIALES				5	
Subtotal	12	21	52	98	
Introducción a la Gestión Emocional				67	
Taller específico de Gestión emocional				36	
SALUD EMOCIONAL			12		
TALLER DE GESTION EMOCIONAL			20		
Cuidado emocional dirigido al personal de urgencia extrahospitalarias (SUE)				41	
Competencias emocionales para el ámbito profesional		20			
HERRAMIENTAS PARA MANEJO DE LA ANSIEDAD EN PACIENTE QUIRURGICO				7	
Subtotal	0	20	32	151	
TALLER DE GESTION DE ESTRES EN EL TRABAJO			48	98	
Subtotal	0	0	48	98	
Taller práctico de TÉCNICAS DE AUTOUIDADO	17				
REORDENACION DE LA POSTURA		41	34	37	
TALLER SOBRE MINDFULNESS		32	31	28	
MANTENIMIENTO DE LA SALUD A TRAVÉS DE LA NUTRICIÓN			50	106	
HIGIENE POSTURAL, PREVENCIÓN DE LESIONES Y AUTOUIDADOS				12	
Subtotal	17	73	115	183	
CUIDADOS Y MEDIDAS PARA UNA CORRECTA HIGIENE POSTURAL EN EL PUESTO				14	
TALLER TEORICO PRACTICO DE MOVILIZACION DE PACIENTES				88	
TRASTORNOS MÚSCULO ESQUELÉTICOS, ASPECTOS ERGONÓMICOS Y EJERCICIOS DE ESTIRAMIENTOS (COCINA)		57			
CUIDADOS Y MEDIDAS PARA UNA CORRECTA HIGIENE POSTURAL EN EL PUESTO (COCINA)			29		
TRASTORNOS MÚSCULO ESQUELÉTICOS, ASPECTOS ERGONÓMICOS Y EJERCICIOS DE ESTIRAMIENTOS PARA PINCHES DE	29				
CUIDADOS Y MEDIDAS PARA UNA CORRECTA HIGIENE POSTURAL EN EL PUESTO (ÁREA ENDOSCOPIAS)			59		
Subtotal	29	57	88	102	
Total por año	120	317	523	1010	
TOTAL		1970			

5) Zenbat salaketa aurkeztu dira aldi horretan agintaritza judizialaren aurrean? Zenbat prozedura amaitu dira epai edo ebazpen irmoarekin?

O-NOZeko Laneko Arriskuak Prebenitzeko Zerbitzuak lege-aholkularitzaren eskaera hauek helarazi ditu, eta Nafarroako Gobernuko Aholkularitza Juridikoaren Zerbitzuak lege-laguntzaren eskaera hauek izapidetu ditu Nafarroako Osasun Zerbitzuko langileendako eginkizun publikoetan izaniko egintza eta omisioengatik prozedura judizialekin loturik. Urteen arabera banakaturik:

– 2021ean, lege-aholkularitzarekin, 18; lege-laguntzarekin, 4.

– 2022an, lege-aholkularitzarekin, 26; lege-laguntzarekin, 13.

– 2023an, lege-aholkularitzarekin, 23; lege-laguntzarekin, 5.

– 2024an, lege-aholkularitzarekin, 22; lege-laguntzarekin, 5.

2022ko laguntza juridikoak. Emaniko epaiak:

1.- NOZeko pertsonalak funtzionario publiko baten aurka salatutako atentatu-delitua.

2.- NOZeko bi pertsonak salatutako mehatxu-delitua.

3.- NOZeko pertsonalak salatutako mehatxu-delitua.

4.- NOZeko pertsonalak salatutako mehatxu-delitua.

5.- NOZeko pertsonalak salatutako bi pertsonaren mehatxu-delitua.

6.- NOZeko pertsonalak salatutako mehatxu-delitua.

7.- NOZeko pertsonalak salaketa bat jarri zuen (ez dago jasota zer deliturengatik), eta, auto baten bidez, urruntzeko neurria ezarri zen; neurria behin

eta berriz urratu da, eta horrek laguntza juridikoaren hiru eskaera ekarri ditu, kautelazko neurria hausteagatik, eta hiru epai.

8.- NOZeko pertsonalak salatutako bi pertsonaren ebasketa-delitua.

9.- NOZeko pertsonalak salatutako irain-delitua.

2023ko laguntza juridikoak. Emaniko epaiak: izapidetu diren laguntza juridikoaren 5 eskaeretatik, 3 prozedura judizial daude bidean, bat behin behinako artxibatu da ikerturiko emakumea non den ez jakiteagatik, eta kondena-epai bat eman da NOZeko pertsonalak mehatxu-delitua salatu ondotik:

2024ko laguntza juridikoak. Emaniko epaiak: izapidetu diren laguntza juridikoaren 5 eskaeretatik, 3 prozedura judizial daude bidean, eta oraindik izapidetzen ari dira gaur egun. Beste biei dagokienez, epaiak eman dituzte jada:

1.- O-NOZeko pertsonalak gorroto-delituarengatik salatutako pertsona bat.

2.- O-NOZeko pertsonalaren aurkako salaketa egiteko tratu txarren delituarengatik.

6) Zer baliabide ekonomiko bideratu ditu Nafarroako Gobernuak 2021az geroztik osasun-eremu-ko erasoak prebenitzeko?

Ez Osasun Departamentuak eta O-NOZek, ezta Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuak ere ez dute partida espezifikotan kontsignatzen profesionalen aurkako erasoak prebenitzearrekin loturiko gastua; hori dela eta, O-NOZen kasuan, laneko arriskuen prebentzioaren eremuan eginiko gastuaren eboluzioa jakinarazten ahal da, barne harturik Zerbitzu horretako pertsonalarena, 2021. urtetik 2024. urtera bitartean, gastu kontsolidatua ezagutzen delako, bai eta Nafarroako Aurrekontu orokorretan 2025erako kontsignaturiko gastua ere.

2021	2022	2023	2024	2025
2.260.392	2.121.596	2.018.953	2.146.282	2.396.984
114.718	104.774	103.864	103.215	128.195
2.178				
2.377.288	2.226.370	2.122.816	2.249.497	2.525.179

7) Zer aurreikuspen dago ekitaldi honetarako eta hurrengoetarako?

Arlo honetako prestakuntzaren eta informazioaren beharrei erantzuna emateko, honako jarduera hauek egiten ari dira ekitaldi honetan, eta ondotiko ekitaldietan ezartzen joanen dira; horrez gain, Harrera Planak lantzen ari dira prestakuntza barne har dezaten:

Bereziki praktikoak diren ikastaroei eustea, prebenitzeko edo, beharrezko izanez gero, esku hartzeko, indarkeria-gertakarien aurka. Prestakuntza honela mantenduko da:

- Prestakuntza irekia, urteko prestakuntza-planetako bakoitzean programatzen dena, eta orokorrean arrisku horren aitzinean dauden O-NOZeko langile guztiei eskainirikoa. Barne hartzen du bai kanpoko erasoak kudeatu eta prebenitzeari buruzko prestakuntza, bai paziente agresiboa kudeatzeko eta profesionala nahiz ekipoa zaintzeko jokatutako eta komunikazio-teknikei buruzkoa, hala nola fisikoki eusteko eta nork bere burua babesteko baliabideak kasu praktikoekin.

- Prestakuntza murriztua, kolektibo jakin batzuei zuzendua, kanpoko indarkeriaren eraginaren eta prestakuntza-premia zehatzen arabera (Lehen mailako arreta, Larrialdiak, Osasun Mentala eta abar). Ikastaro hauei eutsiko zaie:

- Euspen fisikoa eta autobabesa (12 ordu).

- Elkarrizketarako gaitasunak eta Gatatzak ebaztea (3 ordu).

- Lanbide-eremurako gaitasun emozionalak (6 ordu).

- Aireztapen emozionalerako guneak sortzea (2 ordu).

- Emozioak kudeatzea (3 ordu).

- Kanpoko erasoak prebenitzea eta kudeatzea (5 ordu).

- Kanpoko erasoak gertatzen direnean jarduteko protokoloa (2 ordu).

- Kanpoko erasoak gertatzen direnean jarduteko protokoloa eta Polizia Solaskide Sanitarioaren eginkizunak. Prebentzio-ordezkariendako (3 ordu).

- Elkarrizketarako gaitasunak eta Gatatzak ebaztea (talde espezifikoetan) (3 ordu).

- Lantaldeetan arazoak kudeatzeko eta ebazteko tailer praktikoa (2 ordu).

- O-NOZeko langile guztiendako Laneko arrisuen prebentziorako eskuliburuaren (Kanpoko erasoak) bertsioa eguneratzea. Deskargatzeko prest dago jada O-NOZen intranet sanitarioan.

- Erasoak jakinarazteko eta, gero, erregistratzeko formularioa eboluzionatzea, berrerorleen azterketa errazteko.

- Sustatzea aireztapen emozionalerako guneak abian jar daitezen eta haietan arreta eman dadin, O-NOZeko langileek jasaten duten eskari emozionala kudeatzen laguntzeko neurri gisa.

- Profesional sanitarioarenganako errespetua sustatu eta bultzatzea herritarrendako kanpaina instituzional baten bidez.

- “Testuinguru exigenteko ongizate emozionalerako” partaidetzako gida ezartzea, eta horrela laguntzea trebetasunak nahiz estrategia eraginkorrak eskuratu eta gara daitezen eskari exigente eta/edo txarren aitzinean erantzun prebentibo eta integrala emateko

- Botoirik gabeko uniformeak eta itotzea eragozten duten zintak ezartzea.

- Barneko Departamentuak jada ezarritako segurtasuna kontrolatzeko sistema garatzea. Ahalbidetu egiten du kontrolatzea eraikinen ixtea eta irekitzea, intrusioaren kontrako sistemak eta bideozaintza; barne hartu behar ditu alarma-botoi fisikoak kontrolgunean, sakatzen delarik alerta automatikoki entzun dezaten zaintzaileek eta Foruzaingoak.

- Sistema informatikoekin txertaturiko botoi gorria sinplifikatzeko aukera aztertzea; hau da, ordenagailua besterik gabe kokatzea, eta botoia sakatuz gero, alerta nondik heldu den identifikatzea, laguntza bideratu dadin, ordenagailua blokeaturik egon edo ez.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 16an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00255. Galdera, Foru Gobernuak Industria Ministerioarekin eta Ezkirozko BSHko enpresa-batzordearekin koordinatutako berrindustrializazio-mahaiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Foru Gobernuak Industria Ministerioarekin eta Ezkirozko BSHko enpresa-batzordearekin koordinatutako berrindustrializazio-mahaiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Foru Gobernuak Industria Ministerioarekin eta Ezkirozko BSHko enpresa-batzordearekin koordinatzen duen berrindustrializazio-mahaiari buruz (11-25/PES-00255). Bada, Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, hau jakinarazten dut galderari erantzunez:

Ezkirozko BSHren berrindustrializazio-proiektuaren laburpena

Nafarroako Gobernuak eginiko eskaeraren ondotik eta Industria eta Turismo Ministerioak babesturik, Ezkirozko BSHren instalazioaren berrindustrializazio-proiektua hasi zen helburu honekin: identifikatzea industria-proiektuak; alegia, gaur egungo ahalik eta langile gehien hartzea eta eskualdeko galera ekonomikoa konpentsatzea bermatzeko moduko proiektuak.

BSHk berrindustrializazioan espezializaturiko Metyis enpresa hautatu du prozesurako; 2025eko otsailaren 27an sartu zen prozesuan.

Berrindustrializazio Mahaia ostegunero biltzen da (oraindik hala da), eta hauek osatzen dute:

- BSH enpresaren ordezkariak
- Industria eta Turismo Ministerioa
- Nafarroako Gobernua / Sodena
- ICEX

Inbertitzaileen prospekzioa egin da, industria-ekosistemako askotariko eragileekin harremanetan jarriz, hala nola agenteekin, erakundeekin, enpresa-elkartekin eta enpresa anitzekin, Ezkirozko BSHren instalazioa berrindustrializatzeko eskaintza ezagutarazteko, eta enplegua sortzeko ahalmena ebaluatzeko.

Enpresekin zuzeneko harremana izateko lana honako helburu hauetara bideratu da batez ere:

- Mundu osoko etxetresna elektriko enpresak
- Auto elektriko eta baterietako osagaien fabrikatzaileak
- Ponpen, konpresoreen eta hozte-ekipamenduen fabrikatzaileak (Estatukoak nahiz nazioartekoak)
- Trenbideko osagaien fabrikatzaileak (Espainiakoak nahiz Europakoak)
- Eskualdeko eta inguruetakoa industria metalmekanikoak
- Izotz-makinen fabrikatzaileak (Espainiakoak nahiz Europakoak)
- Espainiako eta Europako elkartek
- Espainiako defentsa-enpresak
- Ekipamendu medikoen Europako fabrikatzaileak
- Europako robotika-fabrikatzaileak

Zertan da Nafarroako Gobernuak Industria Ministerioarekin eta Ezkirozko BSHko langile-batzordearekin koordinatzen duen berrindustrializazio-mahaia?

Berrindustrializazio Mahaia ostegunero biltzen da (oraindik hala da), eta hauek osatzen dute:

- BSH enpresaren ordezkariak
- Industria eta Turismo Ministerioa
- Nafarroako Gobernua / Sodena
- ICEX

Ba al dago planta horrekiko interesa duen enpresarik? Zer fasetan daude elkarrizketak?

Gaur egun, elkarrizketak aitzineraturik daude zenbait enpresarekin. Enpresak Ezkirozko kokale-

kua eta lan-indarra aztertzen ari dira beren hazkunde-proiektuak ezartzea baloratzeko:

- Espainiako metalezko estanzazioen fabrikatzailea

- Lantegia hiru aldiz bisitatu du.

- Xehetasuneko informazioa partekatu da data room-era sarbidea emanez.

- Negozio-plana aurkeztu dute, eta eskaintza EZ loteslea egiteko zain gaude.

- Txinako energia berriztagarriko teknologiaren fabrikatzailea

- Instalazioa bisitatu du.

- Enpresaren kokapenari buruzko erabakia hartzeko zain. Lehia Poloniako instalazioarekin.

- Espainiako defentsa arloko fabrikatzailea

- Zenbait kontatu izan dira; instalazioa bisitatu dute; interesa baieztatzeko bilera egin dute, eta aurreikusirik dago sanferminen aitzinetik beste bisita bat egitea.

- Xehetasuneko informazioa partekatu da data room-era sarbidea emanez.

- Enpresak proiektua zehazteko eta eskaintza EZ loteslea aurkezteko zain.

- Espainiako defentsa arloko fabrikatzailea

- Interesa agertzeko bilera egin da.

- Xehetasuneko informazioa partekatu da data room-era sarbidea emanez.

- Instalazioa bisitatzeko data zehazteko zain.

Azkenaldiko kontaktuak, interesa berresteko zain:

- Papergintzako fabrikatzailea

- Konfidentziasun-akordioa sinatu berri du.

- Instalazioa bisitatzeko data zehazteko zain.

- Txinako ibilgailu elektrikoaren fabrikatzailea

- Instalazioa bisitatzeko eta konfidentziasun-akordioa sinatzeko data zehazten.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitaleko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00256. Galdera, Beiren egin den "Eskola Aktiboak" jardunaldiari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Teresa Nosti Izquierdo andreak Beiren egin den "Eskola Aktiboak" jardunaldiari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Gorteetako kide eta atxiki gabeko parlamentari María Teresa Nosti Izquierdo andreak 11-25/PES-00256 galdera idatzia egin du. Bada, Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galderari erantzunez:

«Eskola aktiboak, herri biziak. Landa-eskola, toki-garapenerako funtsezko tresna» topaketa egin zen 2025eko ekainaren 9an, eta bertan Erdialdeko 12 landa-eskoletako ikasleek eta irakasleek parte hartu dute, baita haiek dauden herrietako udal-ordetzak ere. Era berean, Nafarroako landa-eskolen sareko koordinatzailea gonbidatu zuten.

Erdialdeko Partzuergoak antolatu zuen topaketa, «Herri aktiboak, herri biziak» lankidetzaproiektuaren barruan. Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentu finantzaturiko lankidetzaproiektua da, honako hauek garatzen ari direna: Cederna Garalur elkarte, EDER Partzuergoa, TEDER elkarte eta Erdialdeko Partzuergoa. Horrenbestez, ulertzekoa da topaketaren

jarraipena eta ebaluazioa egitea erakunde antolatuarengana dagokiola, eta ez Hezkuntza Departamentuari.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00257. Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak ukitutako irakasleei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Nafarroako Foru Komunitateko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatzen dituen maiatzaren 24ko 58/2024 Foru Aginduak ukitutako irakasleei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 18an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak 11-25-PES-00257 informazio-eskaera / idatzizko galdera egin du. Bada, Hezkuntzako kontseilaria naitzen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galdera-sortari erantzunez:

– Zenbat irakasleri eraginen die Foru Agindu berriak?

Une honetan ez da jakiten ahal Foru Aginduen aplikazioak zenbat irakasle ukituko dituen, ikastetxeetako plantillen azken konfigurazioaren mende egonen baita.

– 2022ko egonkortze prozesuan hainbat irakasle atzerriko hizkuntzaren profila zuten plazak lortu zituzten Matematikan eta Teknologian, orain profil gabeko plazak izanen dira. Zer gertatuko da haiekin? Plazak duten ikastetxeetan garatzen ahalko dira? Lekualdatze lehiaketan derrigorrezko parte-hartzea izanen dute?

Irakastordurik gabe gelditzen diren funtzionarioei ez zaie lanpostua ezabatuko, eta, horrenbestez, ikastetxe berean izanen dute oraindik behin betiko destinoa. Langileak egoera honetara igaroko dira: «lekualdatua irakastordu ezagatik» egoera izanen dute, eta betebeharra izanen dute ikasturte bakoitzerako behin-behineko destinoen adjudikazio-prozeduretan parte hartzeko.

– Zer gertatuko da oposizio-lehiaketan parte hartu eta gero Matematika eta Teknologia ingelesez emateko zerrendetan daudenekin? Horietako asko lehentasunezko zerrendan daude oposizioa gairatu zutelako. Baina beste zerrenda bat dago, zeinetan ez den ingeleza eskatzen, eta bertan lehentasunezko zerrendan jende anitz dago. Bi zerrendak mantenduko dituzte? Zerrendak bateratuko dituzte? Zein irizpiderekin?

Bi zerrendak mantenduko dira.

– Hemendik aurrera ingelesez ordu gehiago eman beharko direnez (Geografia eta Historia, Biologia eta Geologia, eta Fisika eta Kimika), atzerriko hizkuntzetan profirik ez duten irakasle batzuk lekualdatuak izan beharko dira. Zenbat izanen dira? Zer asmo dago langile horiei dagokienez?

Foru Agindua aplikatzearen ondorioz espezialitate batzuetan edo beste batzuetan izaten diren irakastorduen aldaketek kontratazioa handitzea ekarriko dute batzuetan, eta gutxitzea beste batzuetan, baina une honetan ez da zehazten ahal zenbat pertsona diren. Nolanahi ere, kontratatuturiko langileak ez dira «lekualdatzen», baizik eta, espezialitateetan sortzen diren beharren arabera, batzuetan edo besteetan kontratatzen dira.

– Hezkuntza Departamentua elkarlanean ari al da ikastetxeetako zuzendaritzekin Foru Agindu hori betetzeak ekarriko dituen gorabeherak lantzeko?

Hezkuntza Departamentua, Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuaren eta Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuaren bitartez, erantzuten ari zaizkie ikastetxeek foru aginduaren aplikazioari

buruz eta ikastetxe bakoitzaren hizkuntza-planaren gainean dituen ondorioei buruz eginiko argibide-eskaerei eta kontsultei.

Iruñean, 2025eko uztailaren 18an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00258. Galdera, gerrako biktimak hobitik atera, identifikatu era erreparatze aldera Nafarroak jaso dituen funtsen banaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak gerrako biktimak hobitik atera, identifikatu era erreparatze aldera Nafarroak jaso dituen funtsen banaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak egindako PES-00258 galderarekin lotuta, bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Nafarroak 489.567,21 euro jaso ditu gerraren eta diktaduraren biktimak, zeinen gorpuak hobi, bide-bazter nahiz putzuetan baitaude oraindik, hobitik atera, identifikatu eta erreparatzeko autonomia-erkidegoen artean banaturiko funtsetatik. Transferentzia arrunten bitartez jaso dira.

Hona hemen funts horien banakapena:

2021	
ESLEITUA	232.881,27 €
KONPROMETITUA	105.534,81 €
GELDIKINAK	127.346,46 €

2022	
2021EKO	127.346,46 €
	49.614,78 €
ESLEITUA	
ERABILGARRIA	176.961,24 €
KONPROMETITUA	140.700,25 €

2023	
2022KO	31.260,99 €
ESLEITUA	115.845,05 €
ERABILGARRIA	147.106,04 €
KONPROMETITUA	120.715,67 €

2024	
2023KO GELDIKINA	26.390,37 €
ESLEITUA	114.583,93 €
ERABILGARRIA	140.974,30 €
KONPROMETITUA	122.616,48 €

2025	
2024KO GELDIKINA	18.375,82 €
ESLEITUA	
ERABILGARRIA	
KONPROMETITUA	

2021EAN JASOAK	105.534,81 €
2022AN JASOAK	140.700,25 €
2023AN JASOAK	120.715,67 €
2024AN JASOAK	122.616,48 €
JASOTAKOA,	489.567,21 €

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 27an

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

11-25/PES-00259. Galdera, Aizkolegiko jauregian eta Bertizko Jaurerriko parke naturalean 2025ean egindako jarduketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Isabel Olave Ballarena andreak Aizkolegiko jauregian eta Bertizko Jaurerriko parke naturalean 2025ean egindako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 21ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Isabel Olave Ballarena andreak 11-25/PES-00259 idatzizko galdera egin du, Aizkolegiko jauregian eta Bertizko Jaurerriko parke naturalean 2025ean egindako jarduketei buruz. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut galderari erantzunez:

2025ean honako jarduketa hauek egin dira, egiten ari dira eta egitea aurreikusten dira Bertizko Jaurerriko parke naturalean:

1. Naturagune babestuko Turismo Kalitateko Sistemaren administrazioa eta kudeaketa:

Bertizko Jaurerriko parke naturalak Turismo Kalitateko Sistema ezarriko du, Espainiako Turismo Kalitaterako Erakundearen araudiarekin bat etorriz. Ezarriko Turismo Kalitateko Sistemak lanerako zenbait prozedura eta jarraibide aplikatzea dakar; halakoek zehazten dute zenbait lan nola egin behar diren, hala nola jendearen arreta eta naturagunea garbitu nahiz mantentzeko lanak. Prozedurak behar bezala dokumentaturik daude.

2. Naturagune babestuko ekipamenduak mantentzea:

- Lorezaintza-lanak: lorategiaren urteko mantentze-lanak; heskaiak eta zuhaitzak inautzea eta mantentzea parke naturaleko gainerako ibiltokietan, eta igarotzea eragozten duten zuhaitz eroriak moztea eta kentzea bidezidorretan.

- Igeltserotza-lanak: igeltserotza-lan txikiak, hondaturiko instalazioak konpontzeko, daudenak egokitzeko eta bisitarien eskariei kasu eginez zerbitzua hobetzeko.

- Bertizko Jaurerriko parke naturaleko bestelako mantentze-lanak: erretenak garbitzea, perimetrotako itxitura konpontzea, seinaleen mantentze-lanak egitea eta haiek birjartzea, eta beste.

3. Naturagune babestuaren erabilera publikoa kudeatzeko lanak, honako hauek zehazki:

- Harrerako Etxolan eman beharreko bisitariarendako arreta eta informazioa.

- Lorategi historikoko bisitariendako arreta: unean dagoen eskaintzaren berri ematea, hala natura ezagutzeko zentroan nola erakustaretoetan.

- Eskola-kanpainak programatzea eta laguntzea, eta bisitaldi gidatuak egitea.

- Dinamizazio-lanak egitea, eta zaintzea lorategi historikoa, basoko bidezidorrak, aparkalekua nahiz zelaia egoki erabiltzen dituztela, batez ere bisitari gehien dagoen uneetan.

- Bertizko Jaurerriko parke naturaleko azpiegitura nagusiak mantentzeko eta garbitzeko lanak.

4. Boluntario-lanak naturagune babestuan:

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Gazteriarren Institutuaren bitartez, naturan jarduerak egitea

bultzatzen du, gazteak ingurune naturalera hurbildu daitezzen, eta haien artean natura ezagutzea, zaintzea eta errespetatzea sustatzeko. Planteamendu horrek laguntzen du, orobat, landa-inguru-neetako baliabide naturalak balioztatzen, eta haiek hobeki babestea eta arduraz kudeatzea dakar. Hain zuzen ere, besteak beste, gazte-mugikortasuneko programa baten bidez kanpalekuak sustatzen ditu urtero Bertizko Jaurerriko parke naturalean. Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak Nafarroako Gazteriaren Institutuaren esku jartzen du boluntario-lanak naturagune babestuan egiteko behar den aurrekontua.

5. Naturagune babestuan ekitaldiak antolatzea Basoen Nazioarteko Eguna, Ingurumenaren Munduko Eguna eta Ate Irekien Eguna direla eta:

- Basoen Nazioarteko Eguna zela kausa –martxoaren 21ean egiten da urtero–, lau jarduera programatu ziren 2025eko martxoaren 22an, larunbata. Lorategi Historiko-Artistikoan sartzeari doakoa izan zen bi egunez. Honako jarduera hauek egin ziren:

- «Bertizko Jaurerriko parke naturaleko basoa deskubritzen» bisitaldi gidatua.

- BIRAKOLORE – Antzerki ibiltaria.

- Baso-sistemei, hazkuntza-sistemei eta «baso jangarriak» planifikatzeari eta diseinatzeari buruzko mintzaldia.

- NATURA BIZIA dokumentalaren emanaldia.

- Ingurumenaren Munduko Eguna zela kausa –ekainaren 5ean egiten da urtero–, hiru jarduera programatu ziren 2025eko ekainaren 7an, larunbata. Lorategi Historiko-Artistikoan sartzeari doakoa izan zen bi egunez. Honako jarduera hauek egin ziren:

- «Bertizko Jaurerriko parke naturaleko basoa deskubritzen» bisitaldi gidatua.

- Parke naturaleko basorako interpretazio-irteera, parkeko biodibertsitatearen parte diren zenbait hegazi-espezie behatu, interpretatu eta identifikatzeko.

Programatutako jardueretako bat (ZIANOTIPIA TAILERRA – Eguzkiaz marrazten) ezin izan zen egin, egun hartako eguraldiagatik.

- Ate Irekien Eguna udazkenean egiten da urtero.

6. Bertizko Jaurerriko parke naturalean etxetako epaitzak prestatzeko lanak egin dira 2025. urtean Oierregiko (Bertizarana) auzotarrendako, Oronoz-Mugairiko arrain-haztegirako eta parkeko baserrietarako.

7. Bertizko kaperako estalkiaren txapa konpondu da.

8. Igeltserotza-lanak eginen dira Goitikoetxea baserriko teilatua egokitzeko lanetan sorturiko kalteak konpontzeko.

9. Bertizko ibairako begiratokiko baranda zaharberritu behar da.

10. Bertizen jolasgunea paratzea aurreikusirik dago, denborale batean zuhaitzak erortzeak kalte-uriko azpiegitura ordeztuko.

11. Aurreikusirik dago zurezko bankuak paratzea.

12. Aurreikusirik dago Aikolegi txaletean amiantozko bateriak kentzea.

13. 2025eko udazkenean, Bertizen espezie exotiko inbaditzaileak deuseztatzeko lanak eginen dira.

14. 2025eko irailean turismo-kalitateko Q-a berrituko da, eta auditoretza bat eginen da horretarako.

15. Halaber, eta lan garrantzitsuak izanik, jakinarazten dut 2023. urtean teilatua berritzeko lanak egin zirela Aranea eta Marquesenea baserrietako estalkian (teilaberritzea eta isolamendua), parke naturalaren barruan, eta igogailu bat paratu zela natura ezagutzeko zentroan (Tenientetxea etxea), eraikinak zuen irisgarritasun-arazo handia konpontzeko. Hiru jarduketetarako aurrekontua 228.384,87 eurokoa izan zen.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 21ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko konseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

11-25/PES-00260. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroan izandako gertakariei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mario Fabo Calero jaunak Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroan izandako gertakariei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide den foru parlamentari Mario Fabo Calero jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, Nafarroako Gobernuari 11-25/PES-00260 galdera egin zion, idatziz erantzun zekion. Bada, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galdera sortari erantzunez:

1. Zerk eragin zuen 2025eko ekainaren 11n, gauaz, Martzillako bizilagunen eta Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko egoiliarren arteko liskarra? Nola ebatzi zen?

Tafallako Foruzain Etxean Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko hezitzaileetako baten lekukotzan oinarriturik adierazitakoaren arabera, gau hartan intzidentea herriko zenbait bizilagunen eta zentroko adingabeen artean sortu zen, zentroko ate trabatu batek sorturiko zaraten ondorioz. Adierazi bezala, adingabe bat saiatu zen, hezitzaileetako baten eskariz, atea eraikinaren kanpoaldekik ostikoka irekitzen, eta bizilagunen amorrua eragin zuen horrek.

2. Foruzaingoak eta Guardia Zibilak zenbat aldiz esku hartu dute Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan 2025ean zehar? Zenbat kide mobilizatu dituzte esku-hartze bakoitzean?

Galdera horretaz, Foruzaingoari dagokion informazioa ematen ahal dut. Informazio Dibisioko Azterketa eta Inteligentzia Brigadak, SERPOL datubasean begiratu ondotik, datu hauek atera zituen: Foruzaingoko kideek 187 aldiz esku hartu dute 2025. urtean intzidentetan.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

11-25/PES-00261. Galdera, Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren kudeaketari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Mario Fabo Calero jaunak Martzillako adingabeendako behaketa- eta harrera-zentroaren kudeaketari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Mario Fabo Calero jaunak 11-25/PES-00261 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, honako informazio hau eskatuz:

• Bidaidetik gabeko zenbat adingabe atzerritar zegoen Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan 2025eko ekainaren 11n?

• Zenbat langile zegoen, txandaka xehakatuta, Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan 2025eko ekainaren 11n?

- Joan den legegintzaldian sortutako Martzillako behaketa- eta harrera-zentroaren zenbat jarraipen-batzorde egin dira legegintzaldi honetan?

- Nafarroako Gobernua zer ari da egiten Martzillako bizilagunekin bizikidetza hobetzeko?

- Bidaiderik gabeko zenbat adingabe atzerritar aldatu dira Martzillako behaketa- eta harrera-zentrotik Iruñerrian inauguratu berri den behaketa- eta harrera-zentrorara?

- Bidaiderik gabeko zenbat adingabe atzerritar eramanen du Nafarroako Gobernuak Martzillako behaketa- eta harrera-zentrotik Iruñean inauguratuko den behaketa- eta harrera-zentrorara?

Bada, Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

- Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan bidaiderik gabeko 94 adingabe atzerritar zeuden 2025eko ekainaren 11n.

- Martzillako behaketa- eta harrera-zentroan langile hauek zeuden, txandaka, 2025eko ekainaren 11n:

- Goizean: hezkuntza-taldeko bederatzi profesional; lantalde teknikoko lau; pedagogia-taldeko bi; zuzendaritzako arduraduna; sukaldeko bi profesional, eta garbiketako bat. Guztira, lantalde tekniko eta edukatiboko hamasei profesional, eta zerbitzu orokorretako hiru.

- Arratsalde: bederatzi hezitzaile.

- Gaez: sei hezitzaile.

- Legegintzaldi honetan ez da aldizkako batzorderik egin, baina haien ordeztu bilerak egin dira haietan parte harturiko kideetako edozeinek eskaturik.

Azkenekoa duela bi hilabete izan zen, eta bizikidetzaren gainean lantzeko batzordea egin zen, honako hauek parte harturik: ikastetxea, institutua, futbol-kluba, zahar-egoitza, auzo-elkartea eta alkatetza. Bileran zenbait gatazka landu ziren, eta hurrengo batzordea programatzea erabaki zen.

- Bizikidetza hobetzeko ekintzei dagokienez, Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak udalari proposatu dio jarraipenerako batzorde formalak berriz egitea, ordezkagarritasun handieneko herriko elkarteak deiturik. Halaber, planteatu da bilera deitzea zentrotik gertu bizi diren herritarrekin.

- Martzillako behaketa- eta harrera-zentrotik 38 haur eta nerabe eraman dira Iruñerriko behaketa- eta harrera-zentro berrietara.

- Martzillako behaketa- eta harrera-zentrotik 11 haur eta nerabe eraman dira Iruñeko behaketa- eta harrera-zentro berrietara. Gaur egun 25 daude zentroan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 17an

Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00262. Galdera, Historia Sozial Bakarrari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Historia Sozial Bakarrari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias


ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak 11-25/PES-00262 galdera egin du, idatziz erantzun dakion. Hona hemen galdera hori:

Historia Sozial Bakarra dela-eta, zer neurri ezarri dira, zer aurrerapen lortu da eta zein da egun duen egoera?

Bada, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako konseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Galderari erantzuteko, lehenik azaldu nahi dugu Historia Soziala nola ulertzen dugun, eta zer sistemez eta mailez osaturik dagoen:



Pertsona bat Nafarroako gizarte-zerbitzuen sisteman sartzen delarik, gizarte-zerbitzuetatik egiten du normalean. Haietan, profesionalak hiru informazio-sistema dituzte, informazioaren erregistro ordenatua egiteko: profesionalen denbora kudeatzeko agenda; SISSNA, esku-hartzeak prozesu eta programetan oinarriturik erregistratzeko; eta SIPSSNET, prestazioak kudeatzeko. Hiru sistema horiek lanean ari dira; SIPSSNET duela zenbait urtetatik, eta SISSNA nahiz Agenda argitaratu berri dira Estatuaren aplikazioa ordeztzeko (SIUSS). Puntu honetan, SISSNAren bertsio berriak lantzea falta zaigu, gizarte-zerbitzuetako langileendako funtzionalitate gehiagorekin: dokumentazioa kudeatzea, Gizarte Zerbitzuetako Zentroen eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen arteko lan koordinatua, udal-eskumeneko prestazioak, eta prestazioen kudeaketa (SIPSSNET) SISSNAn integratzea.

Bi tresna horiek argitaratzearekin lorturiko aurrerapenen artean daude gizarte-zerbitzuen lehen mailako arretan egiten den lanaren isla errealagoa eskuratzea, pertsonak gizarte-zerbitzuen sisteman duten bizitzaren trazabilitatea egiteko aukera emango duten historia pertsonalak sortzea, eta gizarte-zerbitzuetako arreta-eredu berria sistematizatzea.

Departamentuaren arloan kudeatzen dira prestazioak. Orain arte erabiliriko informazio-sistema SIPSS da, haren inguruan orbitatzen duten zenbait sistema sateliterekin. Nolanahi ere, sistema zaharkitua da, eta, beraz, konpondu beharreko zor teknikoa ere handia da. Horregatik, atal horretan sistema migratzeko lanean ari gara, Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako Departamentuan prestazioa baloratzeko eta ema-

teko/ukatzeko egiten den lan guztiaren kudeaketa efizienteagoa eta automatizatuagoa bilatzeko.

Baldin eta Departamentuan kudeatzen diren prestazioetakoren batek badakar zerbitzu bat zentro baten bitartez ematea (adinekoak, adingabeak, desgaituak eta abar), garrantzitsua da erregistro bat edukitzea pertsona horrek harekin egiten duen jardueraren gainean. Horregatik, duela urte batzuk RESIPLUS ezarri zen Nafarroako Gobernuaren zentroetan, eta, SIPSSNETen bitartez, adinekoendako egoitzen plazak kudeatzeko aukera ematen da. Gaur egun, eta MRR funtsei esker, informazio-sistema berri bat lantzen ari gara (SIPROSSNA). Sistema horretan zentro itunduek artatzen dituzten pertsonen informazioa ematen ahalko dute, eta, era horretan, pertsonaren historia sozialaren informazio-erregistroa osatuko dute.

Halaber, kasu guztietan, lanean ari gara historia sozialean eragina duten beste departamentu batzuekin ere (Ogasuna, Hezkuntza, Osasuna, Etxebizitza, Enplegua eta abar) elkarlanean aritzeko.

Horrez gain, argitaraturik eta eskuragarri dago karpeta soziala ere; herritarrek beren historiari buruzko informazioa kontsultatzeko aukera dute hari esker. Puntu horretan, oraingoz, argitaraturiko informazioak zerikusia du Eskubide Sozial-etako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako Departamentuak kudeaturiko prestazioekin. Urtea bukatu baino lehen, planifikatua dago hura eskuratzeko sistema berria abian jartzea, Nafarroako karpeta-aren (wallet) identifikazio biometrikoari esker, hura eskuratzeko aukera handiagoa egon dadin, batez ere arrakala digital handiena duten kolektiboenda-

ko (kasurako, adineko pertsonak eta desgaitasuna duten pertsonak). Karpetaaren eboluzioaren ibilbide-orrian dago SSSNA, Agenda eta SIPROSS-NAren informazioa jasotzea, ziurtagiriak eskuratzea, prestazioak kudeatzea eta beste.

Azkenik, bildutako informazio guztia informazio-biltegi batean egon behar da (Dataware House). Biltegiak utzi behar digu datuak ziurtasun eta fidagarritasun anitzez handiagoz ustiatzen, erroreak gertatzeko arrisku txikiagoarekin. Informazio ona edukitzeak aukera ematen digu erabakiak datuetan oinarriturik hartzeko, eta adimen artifiziala kalitatezko deskribapen-, predikzio- eta pres-

kripzio-analisia egiteko ere. Atal hori landu dugu gutxien, eta baliabide gehiagorekin helduko diogu behin arestian esaniko informazio-sistemak egonkorturik daudenean eta informazioa erregistraturik eta normalizaturik dutenean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 4an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00263. Galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egiteko arrazoiei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egiteko arrazoiei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-25/PES-00263 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldearen buru zego-

en psikologoak alde egiteko arrazoiei buruzkoa eta Tuterako Osasun Barrutiak alde egin zuela jakin zuen datari buruzkoa. Bada, Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Psikologiako profesionalak Tuterako Osasun Barrutiko kontratuari uko egin zion jatorrizko erki-degoan lan-eskaintza bat onartzeko. Profesionalak apirilaren 4an jakinarazi zuen alde eginen zuela, eta hura izan zen profesionalaren azken benetako lan eguna.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00264. Galdera, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egin izanak utzitako hutsunea betetzeko ekintzei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak uterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko psikologoak alde egin izanak utzitako hutsunea betetzeko ekintzei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 20ko 80. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-25/PES-00264 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Tuterako Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldea desagertu dela-eta, psikologoak alde egin izanak utzitako hutsunea betetzeko ekintzei buruzkoa. Bada, Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut eginiko galderari erantzunez:

Osasun Mentaleko Zentroko Minaren Taldeko kide zirenei dagokienez, ibilbide luzeko taldea izanik eta osatzen zuten pazienteen beharrak aldatzen joan direnez, taldearen jardura berrantolatu egin da haren buru zegoen profesionalak alde egitearekin batera. Taldeko kide ziren 25 pertsonen psikologo batekin banakako hitzordua egitea eskaini zaie, kasu bakoitzean beharrei erantzuteko biderik onena zein den zehazteko (hau da, besteak beste, banakako arreta jasotzea eta askotariko gaien/patologiaren inguruan dagoeneko eratuta daude beste taldeetarekin batean sartzea).

Psikologoaren plaza betetzeari dagokionez, plaza kontratatze eskaini zen, eta onartu egin du prestakuntza-aldia uztailaren 18an bukatzen duten egoiliarretako batek; horrenbestez, biharamunean hasiko da lanpostuan.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 15ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-25/PES-00265. Galdera, pasa den ekainaren 13an Foruzaingoak Martzillako adingabeentzako behaketa eta harrera zentroko adingabeak lekualdatzerakoan izandako jokabideari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Javier Arza Porrás jaunak pasa den ekainaren 13an Foruzaingoak Martzillako adingabeentzako behaketa eta harrera zentroko adingabeak lekualdatzerakoan izandako jokabideari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Arza Porrás jaunak, Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-25/PES-00265 galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuak Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

1. Zer ezaugarri izan ditu lekualdatze horrek?

Lekualdaketa gertatu zen ekainaren 13ko goizaldean izaniko liskarren testuinguruan; orduan, istiluak gertatu ziren, eta haietan, hiriko altzariak suntsitu zituzten eta objektuak jaurti zituzten; ondorioz, polizia-patrulak joan behar izan ziren herrira, egoera kontrolatzen eta ordena publikoa bermatzen saiatzeko.

Gertaera horien ondorioz larrialdiko bilera egin zuten, ekainaren 13an bertan, Nafarroako Gobernuaren zerbitzu batzuek. Bileran Martzillako 23 adingabe beste zentro batzuetara arratsalde hartan bertan eramatea erabaki zuten. Hartarako, Foruzaingoaren laguntza eskatu zen, 23 adingabeetako batzuek zerikusia izan baitzuten aurreko goizaldeko istiluetan.

Nafarroako Gobernu arduradunekin izaniko elkarrizketek hizpide izan zuten lekualdaketa nola egin, une oro bermaturik adingabeen, hezitzaileen eta esku hartzen zuten agenteen segurtasuna, bai haiei guztiei lekualdaketa berri ematean eta zentroan nor bere jabetzak biltzean, bai ibilgailuetara eramatean eta azken destinoko zentroak harrera egin eta bakoitza nor bere tokian jartzean.

Lekualdaketa, 23 adingabeez gain, honako hauek ere bazeuden autobusean: Martzillako behaketa- eta harrera-zentroko bi hezitzaile, zazpi foruzain eta agintari bat.

2. Adingabe guztiei jarri al zitzaizkien eskuburdinak? Zergatik?

Ez zitzaion eskuburdinarik jarri adingabe bakar bati. Zenbait kasutan nylonezko lazoak erabili ziren; neurriaren bidez bermatu nahi zen lekualdaketa erabateko segurtasunez egitea adingabeendako nahiz esku hartzen zuten langileendako (hezitzaileak, gidaria eta agenteak). Kontuan hartu behar da lekualdaketa toki hain txikian eta mugimenduan egitea aski konplexua zela. Haien eskubi-

de guztiak errespetatu ziren, eta begirune osoz tratatu zituzten, jakina. Halaber, haiei adi egon ziren lekualdaketa osoan, eta ez zen intzidenterik egon.

3. Lekualdatze horretan errespetatu al da adingabeekin jarduteko polizia-protokoloa?

Esan bezala, haien eskubide guztiak errespetatu zituzten, eta begirune osoz tratatu zituzten. Proportzionaltasunak eta egoerara egokitzeak zuzendu zituzten Foruzaingoaren jarduketa guztiak, eta xede izan zuten une oro bermatzea lekualdaketa parte harturiko pertsonen segurtasuna eta babesa: adingabeak, zentroko hezitzaileak, gidaria eta agenteak.

4. Zure departamentuak ezer egingen al du VOX Nafarroak sare sozialetan eskegitako bideo hori dela-eta, non argi eta garbi ikusten baita bi adingaberen aurpegia?

Kasu honetan, Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Nafarroako Agentziako zuzendari kudeatzaileak emaniko ekainaren 27ko 388E/2025 Ebazpenaren bidez jardun da, zeinaren bidez zehapen-prozedura hasten baita VOX (Nafarroa) alderdi politikoaren kontra, ustez administrazioko arau-hauste larria egiteagatik. Arau-hauste hori jasorik dago haur eta nerabeei arreta eta babesa emateko araudian, zeina tipifikaturik baitago maiatzaren 11ko 12/2022 Foru Legearen 53.e) artikuluan (12/2022 Foru Legea, Haur eta nerabeei arreta eta babesa eman eta haien familiak, esku-bideak eta berdintasuna sustatzekoa).

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

11-25/PES-00266. Galdera, 11-24/MOC-00140 espedientean onetsitako mozioan jasotako Kulturako lanbideen lege-proiektuari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Francisco Javier Trigo Oubiña jaunak 11-24/MOC-00140 espedientean onetsitako mozioan jasotako Kulturako lanbideen lege-proiektuari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

UPN talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Javier Trigo Oubiña jaunak 11-25/PES-00266 informazio-eskaera egin zuen, Kulturako lanbideen lege-proiektuaren egoerari buruz. Bada, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut hari erantzunez:

Vianako Printzea Erakundea-Kultura Zuzendaritza Nagusiak arrunt balorazio positiboa egiten du Kulturako lanbideen lege-proiektuaren ekimenaz, sektoreko profesionalak eta zenbait administrazio zabal adierazitako lege-hutsuneari helden baitio. Kulturako lanbideen lege-, estatu- eta administrazio-aitortza funtsezko urratsa da sektorea duintzeko, egonkortzeko eta jasangarri bilakatzeko bidean.

Nafarroako Gobernuak, Kultura Zuzendaritza Nagusiaren bitartez, lan egin du kultur sektorearen lan-baldintzak indartzeko eta hura profesionalizatzeko. Neurri zehatzetan gauzatu da hori: dirulaguntzak deitzea, programa propioak diseinatzea eta sektorearen alde zeharkako araudia aplikatzea. Baita azterlan eta txosten espezifikoetan ere, jendaurrean jakinarazitakoetan.

Kulturako Lanbideen lege-proiektuari dagokionez, Kultura Zuzendaritza Nagusia honako alderdi hauek aztertzen ari da:

- Kulturako lanbideen definizioa: positibo irizten diegu lanbideen sailkapenari eta zerrendaketari, baina ezinbestekoa da ikuspegi malgua izatea, lanbide emergente edo zeharkako berriak gehitu ahal izateko.

- Lanbide-esperientziaren aitortza: esperientzia lanbide-aitortzaren sarbide gisa (curriculumaren bidea) jasotzea baloratzen da. Bide horrek lanbide emergente edo zeharkako berriak integratzea ahalbidetuko du.

- Laneko eta ordezkari kolektiboko eskubiak: funtsezkotzat jotzen dugu legeak berriaz jasotzea langileen lan-eskubideak eta ordezkari kolektibokoak.

- Lanbide-praktikaren eta jardueraren arteko bereizketa: bereizketa argia ezarri behar da lanbide-praktika ordainduaren eta kultur partaidetzako bestelako formen artean (kasurako, amateurra edo boluntarioa).

- Lanbideko bizi-zikloaren estaldura: araudiak aintzat hartu behar du kultur arloko langilearen lanbide-ibilbide osoa, prestakuntzatik aurrera, barne harturik askotariko alderdiak, hala nola enplegagarritasuna, fiskalitatea, eskubide sozialak, jabetza intelektuala, lan-arriskuak eta gizarte-ekonomiako ereduak.

- Genero-ikuspegia eta lurraldetasuna: funtsezkoa da begirada bat sartzeko, kultur jarduketan profesionalen genero-ekitate bermatzeko, eta landa-ingurunearen espezifikotasunak kontuan hartzeko.

- Nafarroako artistaren estatutua: hura sortzeko lege-egokitzapenak baloratu beharko dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 2an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

11-25/PES-00267. Galdera, Kanariar Uharteetan dauden bidaidetik gabeko adingabeen banaketaren gaineko komunikazioei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak Kanariar Uharteetan dauden bidaidetik gabeko adingabeen banaketaren gaineko komunikazioei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 24an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00267 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Hona hemen galdera hori:

– Jaso al du Nafarroako Gobernuak komunikazioari asiloa eskatu duten eta Kanarietan dauden bidaidetik gabeko adingabeen balizko banaketari buruz, Espainiako Gobernuak adingabe horiek hartu eta horien ardura hartzeko zain?

– Horietako batzuk Nafarroara iritsiko balira, non hartuko lukete ostatu?

Bada, Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentuak ez du jakinarazpenik jaso asiloa eskatu duten eta Kanarietan dauden bidaidetik gabeko adingabeen banaketari buruz.

Haurren eta Nerabeen Batzorde Sektorialak uztailaren 8an eginiko bileran bidaidetik gabeko neskek, mutilak eta nerabeak banatzeko proposamena baino ez zuten helarazi (asilo-eskatzailak baztertuta), Kanarietan eta Ceutan dagoen ezohiko migrazio-kontingentzia egoera zela-eta. Banaketan, proposatu zuten gehienez 118 adingabe lekualdatzea Nafarroako Foru Komunitatera.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 24an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-25/PES-00268. Galdera, 2015-2019 legegintzaldian Gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek Antxon Alonso Egurrolarekin izandako bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak 015-2019 legegintzaldian Gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek Antxon Alonso Egurrolarekin izandako bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00268 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Galdera: Jasota al dauka Gobernuak Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bilerarik egin izana

2015-2019 legegintzaldian gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek?

Ez dago jasota inolako bilerarik egin zenik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

Ogasun eta Ekonomiako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00268 idatzizko galdera egin zuen (2025eko ekainaren 24ko 202505191 erregistro-zenbakia Nafarroako Parlamentuan). Bada, Nafarroako Gobernuak Ogasun eta Ekonomiako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez: Jasota al dauka Gobernuak Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bilerarik egin izana 2015-2019 legegintzaldian gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek?

Ez dago jasota inolako bilerarik egin zenik.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak ere, uztailaren 16an jakinarazitakoaren arabera, ez du jasota inolako bilerarik egin izana. Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00268 idatzizko galdera egin zuen, jakiteko Gobernuak jasota al daukan gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek bilerarik egin ote zuen Antxon Alonso Egurrola jaunarekin 2015-2019 legegintzaldian. Bada, Nafarroako Gobernuak Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

– Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuan ez dugu jasota inolako bilerarik egin izana.

Hori jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betetzeko.

Iruñean, 2025eko uztailaren 4an

Kultura, Kirol eta Turismo kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00268 idatzizko galdera egin zuen, Gobernuak kideek Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin 2015-2019 legegintzaldian egindako balizko bileren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuak Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Lurralde Kohesiorako Departamentuan ez dugu jasota inolako bilerarik egin zenik Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin 2015-2019 legegintzaldian.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00268 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

«Jasota al dauka Gobernuak Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bilerarik egin izana 2015-2019 legegintzaldian gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek?»

Ez dugu jasota Gobernuak eta/edo Lurralde Kohesiorako Departamentuko enpresa publikoetako kideek inolako bilerarik egin zutenik Antxon Alonso Egurrola jaunarekin 2015-2019 legegintzaldian.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioi atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00268 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernu-ko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

– Jasota al dauka Gobernuak Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bilerarik egin izana 2015-2019 legegintzaldian gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek?

Ez dago jasota.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak 11-25-PES-00268 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Zure galderari erantzunez, nik, Hezkuntzako kontseilariak, ez dut jasota inolako bilerarik egin zenik.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioi atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak, Nafarroako Gorteetako kide gisa eta Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-25/PES-00268 idatzizko galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Bada, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

1. Jasota al dauka Gobernuak Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bilerarik egin izana 2015-2019 legegintzaldian gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek?

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuan ez dago jasota aipatu jaunarekin inolako bilerarik egin zenik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 21ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioi atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00268 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin egindako bileren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuan ez dugu jasota inolako bilerarik edo topaketarik egin zenik Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 21ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioi atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00268 informazio-eskaera egin zuen, jakiteko Gobernuak jasota al daukan gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek bilerarik egin ote zuen Antxon Alonso Egurrola jaunarekin 2015-2019 legegintzaldian. Bada, Nafarroako Gobernuko bigarren lehendakariordea eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Ez dut inolako bilerarik egin Antxon Alonso Egurrola jaunarekin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 2an

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-00268 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Nafarroako Gobernuari honako informazio hau eskatuz:

Jasota al dauka Gobernuak Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bilerarik egin izana 2015-2019 legegintzaldian gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek?

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko Departamentuan ez dago jasota inolako bilerarik egin zenik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Nafarroako lehendakariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak, Nafarroako Gorteetako kide gisa, PES-00268 galdera egin zuen. Bada, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Jasota al dauka Gobernuak Antxon Alonso Egurrola jaunarekin bilerarik egin izana 2015-2019 legegintzaldian gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek?

Lehendakariaren Kabinetean ez dago jasota inolako bilerarik egin zenik 2015-2019 legegintzaldian.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Osasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00268 informazio-eskaera egin zuen, jakiteko Gobernuak jasota al daukan gobernuko eta/edo enpresa publikoetako edozein kidek bilerarik egin ote zuen Antxon Alonso Egurrola jaunarekin 2015-2019 legegintzaldian. Bada, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Ez dut inolako bilerarik egin Antxon Alonso Egurrola jaunarekin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-11-25/00268 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Gobernuko kideek Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin egindako bileren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan ez dugu jasota inolako bilerarik edo topaketarik Joseba Antxon Alonso Egurrola jaunarekin.

Hori jakinarazten dut, ezarritako epeak eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00269. Galdera, 2015etik 2021era bitartean Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideek Accionak Nafarroan eta Errioxan zuen ordezkari Fernando Merino jaunarekin izandako bilerei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina López Mañero andreak 2015etik 2021era bitartean Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideek Accionak Nafarroan eta Errioxan zuen ordezkari Fernando Merino jaunarekin izandako bilerei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00269 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Galdera: Bildu al da Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi bileraren eguna, tokia, bertaratuak eta gaia.

Ez dago jasota inolako bilerarik egin zenik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Hirugarren lehendakariorde eta Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako kontseilaria: Begoña Alfaro García

Ogasun eta Ekonomiako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00269 idatzizko galdera egin zuen (2025eko ekainaren 24ko 202505192 erregistro-zenbakia Nafarroako Parlamentuan).

Bada, Nafarroako Gobernuko Ogasun eta Ekonomiako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

“Bildu al da Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi bileraren eguna, tokia, bertaratuak eta gaia”.

Ez dago jasota inolako bilerarik egin zenik.

Nafarroako Enpresa Korporazio Publikoak ere, uztailaren 16an jakinarazitakoaren arabera, ez du jasota inolako bilerarik egin izana. Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Ekonomia eta Ogasun kontseilaria: José Luis Arasti Pérez

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00269 idatzizko galdera egin zuen, jakiteko bildu ote zen Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean. Bada, Nafarroako Gobernuko Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

– Kultura, Kirol eta Turismo Departamentuan ez dugu jasota inolako bilerarik egin izana.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatzen dena betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 4an

Kultura, Kirol eta Turismoko kontseilaria: Rebeca Esnaola Bermejo

Lurralde Kohesiorako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00269 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Nafarroako Gobernuko kideek eta Fernando Merino jaunak 2015etik 2021era bitartean egindako balizko bileren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Lurralde Kohesiorako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Lurralde Kohesiorako Departamentuan ez dugu jasota inolako bilerarik egin zenik Fernando Merino jaunarekin 2015etik 2021era bitartean.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Lurralde Kohesiorako kontseilaria: Óscar Chivite Cornago

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00269 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

“Bildu al da Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean?”

Nik, Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak, ez dut inolako bilerarik egin edo topaketarik izan aipatu pertsonarekin zehaztutako aldian.

Horrez gain, Departamentuan ere ez dugu jasota inolako bilerarik edo topaketarik egin zenik Fernando Merino jaunarekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: José María Aierdi Fernández de Barrena

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero

andreak 11-25/PES-00269 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion. Bada, Nafarroako Gobernuko Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

– Bildu al da Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi bileraren eguna, tokia, bertaratuak eta gaia.

Nik, María Carmen Maeztu Villafranca Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak, ez dut inolako bilerarik egin edo topaketarik izan aipatu pertsonarekin zehaztutako aldian.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

Hezkuntzako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioak 11-25-PES-00269 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Nik, Carlos Gimeno Gurpegui Hezkuntza kontseilariak, ez dut inolako bilerarik izan Fernando Merino jaunarekin.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak, Nafarroako Gorteetako kide gisa eta Parlamentuko Erregelamenduan xedatuaren babesean, 11-25/PES-00269 idatzizko galdera egin zion Nafarroako Gobernuari, idatziz erantzun zekion. Bada, Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Bildu al da Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean? Erantzuna

baiezkoa bada, adierazi bileraren eguna, tokia, bertaratuak eta gaia.

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentuan ez dago jasota aipatu jaunarekin inolako bilerarik egin zenik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 15. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 21ean

Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako kontseilaria: María Amparo López Antelo

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00269 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Fernando Merino jaunarekin egindako bileren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuo Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuan ez dugu jasota inolako bilerarik edo topaketarik egin izana Fernando Merino jaunarekin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 21ean

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00269 informazio-eskaera egin zuen. Bada, Nafarroako Gobernuo bigarren lehendakariordea eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Bildu al da Nafarroako Gobernuo edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi bileraren eguna, tokia, bertaratuak eta gaia.

Ez dut inolako bilerarik egin Fernando Merino jaunarekin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 2an

Bigarren lehendakariorde eta Memoria eta Bizikidetzako, Kanpo Ekintzako eta Euskarako kontseilaria: Ana Ollo Hualde

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-00269 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Nafarroako Gobernuari honako informazio hau eskatuz:

Bildu al da Nafarroako Gobernuo edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi bileraren eguna, tokia, bertaratuak eta gaia.

Lehendakaritzako eta Berdintasuneko Departamentuan ez dago jasota inolako bilerarik egin zenik.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Lehendakaritza eta Berdintasuneko kontseilaria: Félix Taberna Monzón

Nafarroako lehendakariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak, Nafarroako Gorteetako kide gisa, PES-00269 galdera egin zuen. Bada, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Bildu al da Nafarroako Gobernuo edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean? Erantzuna baiezkoa bada, adierazi bileraren eguna, tokia, bertaratuak eta gaia.

Nik, María Chivite Navascués lehendakariak, ez dut inolako bilerarik egin Fernando Merino jaunarekin, eta ez dago jasota aurreko lehendakariak ere inolako bilerarik egin zutenik aipatu jaunarekin.

Hori guztia jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Nafarroako lehendakaria: María Chivite Navascués

Osasuneko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak 11-25/PES-00269 informazio-eskaera egin zuen. Bada, Nafarroako Gobernuko Osasuneko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderari erantzunez:

Bildu al da Nafarroako Gobernuko edo enpresa publikoetako kideren bat Fernando Merino jaunarekin (Accionak Nafarroan eta Errioxan duen ordezkaria) 2015etik 2021era bitartean? Erantzuna baiezkkoa bada, adierazi bileraren eguna, tokia, bertaratuak eta gaia.

Ez dut inolako bilerarik egin Fernando Merino jaunarekin.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko ekainaren 25ean

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina López Mañero andreak PES-11-25/00269 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Gobernuko kideek Fernando Merino jaunarekin egindako bileren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuko Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentuan ez dugu jasota inolako bilerarik edo topaketarik Fernando Merino jaunarekin.

Hori jakinarazten dut, ezarritako epeak eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23ean

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Juan Luis García Martín

11-25/PES-00270. Galdera, Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua araberako tokiko parte-hartzea eskaini duten energia berriztagarrien proiektuei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Oihan Mendo Goñi jaunak Klima-aldaketari eta Energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua araberako tokiko parte-hartzea eskaini duten energia berriztagarrien proiektuei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Oihan Mendo Goñi jaunak galdera bat egin zuen, idatziz erantzun zekion, klima-aldaketari eta energia-trantsizioari buruzko martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua araberako tokiko partaidetza eskaini duten energia berriztagarrien proiektuei buruz. Bada, Nafarroako Gobernuko Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut:

Zer prozedura aplikatzen du Nafarroako Gobernuak 4/2022 Foru Legea indarrean sartu zenetik

izapidetutako proiektu eoliko eta fotovoltaikoak izapidetzean, lege horren 36. artikuluan ezarritakoa betetzen dela bermatzeko?

Ekainaren 23ko 23/2020 Errege Lege Dekretuaren arabera, zeinaren bidez ekonomia suspertze aldera energiaren arloko eta beste eremu bartzuetako neurriak onartzen diren, energiaren arloan eskumena duen organoari zuzendutako aurretiko administrazio-baimen eskaerak, aurkeztu behar dira izapidetzeko onartzeko eskaera batekin lagunduta.

Izapidetzeko onartzeko agirian, Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuak baimena eskatzen duten enpresa sustatzaileei gogorarazten die martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen 36. artikulua bete behar dutela, betiere aplikagarri bazaie.

Nabarmentzekoa da aurretiko administrazio-baimen eskaera aurreproiektu batekin lagunduta aurkeztu behar dela, eta posible dela aurreproiektuak bat ez egitea hedapen osoan eta behin betiko kokapenean azkenean eraikuntzako administrazio-baimena jasotzen duen proiektuarekin. Hau da, gerta daiteke izapidetzeko onartzeko eskaera bat jasotzea lurzoru publiko eta pribatua ukituko lituzkeen aurreproiektu batentzat, eta, azkenean, proiektua soilik lurzoru pribatuan exekutatzea, edo soilik lurzoru publikoan.

Garrantzitsua da ere adieraztea Foru Legearen 36. artikulua zehaztutako helburuak betetzeko, administrazio-baimenak emateko baldintza ezin dela izan partaidetzako eskaintza egin dela akreditatzea. Baimen-eskaera egiten duten proiektu guztiak ez dira azkenean ez baimentzen ez exekututzen. Izapideen ostean baimentzen ez diren proiektuetan parte hartzeko aukera eskaintzeak espektatiba faltsuak sor litzake; are, herritarrek gerora baimentzen diren proiektuetan interesa galtzea ere eragin lezake.

Partaidetzako eskaintzaren gauzatzearen akreditazioa lur komunalen desafektazio espedientearen markoan egin daiteke, tokiko erakundeari

obra-lizentzia eskatzeko orduan, edo obra-amaierako egiaztagiriarekin batera.

4/2022 Foru Legea indarrean sartu zenetik izapidetutako zer proiektu eoliko eta fotovoltaikok eskaini behar zuten lege horren 36. artikuluan adierazitako partaidetza frogagarria?

Martxoaren 22ko 4/2022 Foru Legearen zortzigarren azken xedapenaren arabera, aipatu araua Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarri zen indarrean, hau da, 2022ko apirilaren 2an.

PES-00270 galdera egin duen parlamentari berak aurkeztutako PEI-00537 galderaren erantzunean, Departamentu honek bi Excel taula helarazi zituen dagoeneko ekainean, izapidetzen ari diren instalazio fotovoltaiko eta eoliko guztien zerrendarekin. Bada, taula horietan "Eskaera-data" izeneko zutabe bat dago jasota. Hain justu, horixe da izapidetzeko onartzeko eskaera aurkeztu zen data, behin proiektuaren enpresa sustatzaileak sarrerako eta konexioko baimenak lortu, eta aurreproiektu bat idatzi eta aurkeztu ostekoa dena. Aintzat hartu beharko litzateke, hori bai, enpresa sustatzaileak aurretik hasi zituela izapideak, Departamentu honetan sarrerako eta konexioko baimenak lortzeko berme ekonomikoa jartzean, abenduaren 29ko 1183/202 Errege Dekretuak eskatu bezala.

4/2022 Foru Legearen 36. artikulua arabera tokiko partaidetza eskaini behar zuten proiektu horietako zeinek gauzatu dute eskaintza hori?

Uneotan ez dago dagoeneko partaidetzako eskaintza akreditatu behar izan duen proiekturik.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00271. Galdera, Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek Zeroa Multimedia merkataritza-sozietateari emandako abal eta maileguen arrisku biziaren egungo zenbatekoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek Zeroa Multimedia merkataritza-sozietateari emandako abal eta maileguen arrisku biziaren egungo zenbatekoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Juan Luis Sánchez de Muniain Lacasia jaunak 11-25/PES-00271 galdera egin zuen, idatziz erantzun zekion, Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek Zeroa Multimedia merkataritza-sozietateari emandako abal eta maileguen arrisku biziaren egungo zenbatekoaren gainean. Bada, Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Zein da gaur egun arrisku biziaren zenbatekoa Nafarroako Gobernuak eta haren sozietate publikoek Zeroa Multimedia merkataritza-sozietatearekin egindako abal eta maileguetan?

Halakorik baldin badago, zeri dagozkio abalengatik zor diren zenbatekoak eta/edo arrisku-saldok?

- Sodenak Zeroa Multimedia SArekin formalizatutako abalen eta maileguen arrisku biziaren egungo zenbatekoa

Honako hau da Sodenak 2025eko ekainaren 30ean duen arrisku bizia:

- Maileguengandiko arriskua: 307.407,37 € (Sonogarrek berriz abalaturako 62.499,97 €).

- Abalengandiko arriskua: 547.427,29 €.

- Halakorik baldin badago, zeri dagozkio abalengatik zor diren zenbatekoak eta/edo arrisku-saldok?

Honako hauei dagozkie aurreko paragrafoan zehaztutako zor diren zenbatekoak:

- 2020an formalizatutako bi ohiko maileguri, 400.000 euroko zenbatekoa dutenak guztira. Lehen maileguak 100.000 euroko hasierako zenbatekoa eta 2028ko epemuga zuen, eta Sonogar elkar bermatzeko sozietatearen % 100eko abalarekin formalizatu zen; bigarren mailegua, berriz, 300.000 eurokoa zen eta 2030eko epemuga zuen.

Bi maileguak 2020an formalizatu ziren eta 2020eko maiatzaren 27an hartutako gobernu-akordio batean onetsitako pandemiari aurre egiteko maileguen lerroan sartzen dira; zehazki, Sodenari 15 milioi euroko mailegu-lerro bat indarrean jartzeko baimena eman zitzaion COVID-19 gaitzak eta larrialdi-egoeraren adierazpenak ekarritako ondorioak arintzeko.

- Abalengandiko arriskuaren kasuan, 2010ean NAFINCO sozietate publikoak (egun Sodenan integratuta dago) emandako bermeen ondorio da; zehazki, “2009-2012 aldiko likideziako programa orokorra” egitasmoaren barruan emandako lau maileguren % 50ari eta bosgarren mailegu baten % 25ari dagokio arriskua (963.008 euroko hasierako zenbatekoa guztira). Ostean, 2019ko abenduaren 9an, Sodenak birfinantzazio akordio bat sinatu zuen zenbait kreditu erakunderekin, indarrean zeuden maileguen amortizazio egutegia aldatuz eta epemuga 2029 arte luzatuz. 2025eko ekainaren 30ean, aipatu programaren abalengandiko arriskua 341.479,74 eurokoa da.

2010ean bertan, Nafarroako Gobernuak hiru abal eman zituen zailtasunean zeuden enpresentzako laguntzen deialdian, egun 205.947,55 euroko saldo bizia dutenak. 2025eko ekainaren 30etik aurrera, aipatu berri dugun azken birfinantzaketa akordioan sinatutakoaren arabera, Sodena Nafarroako Gobernuaren abal-emale gisa subrogatuta geratzen da Zeroa Multimediari emandako hiru maileguetan (maileguaren % 100aren abala), 2025-2029 aldian zehar zehazki (aurreikusitako kontrabermea barne). Horren arrazoia da Nafarroako ekonomia suspertzeko 18/2008 Foru Legean,

15 urtetik gorako epea duten bermeak ematea mugatzen dela.

Hori jakinarazten dut, Nafarroako Parlamentuaren Erregelamenduaren 215. artikuluan xedatutakoa betez.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-25/PES-00272. Galdera, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko azpiegiturei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko azpiegiturei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak egindako 11-25-PES-00272 idatzizko galderari erantzunez, honako hau jakinarazten dut Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik:

Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko ikastetxeak Barasoain bertako eta Garinoaingo ikasleak eskolatzen ditu egun, bai AG ereduak bai D ereduak. Aldiz, ikastetxeak ez du egun Hezkuntza Departamentuak antolatutako ez garraio zerbitzurik ez jantokirik, ez baita eskualdeko ikastetxea. Aurreikuspena da ikastetxeak sei talde izatea 2025-2026 ikasturtean, hiru AG eredu eta beste hiru D eredu.

Orbaibarko gainontzeko herrietako ikasleek (Leotz, Orisoain, Oloritz, Puiu eta Untzue), Tafallako Marqués de la Real Defensa HLHIPko ikastetxean ikasten dute, eta Hezkuntza Departamentuak antolatutako garraio eta jantoki zerbitzuak dituzte.

Aipatu herrietako ikasleak (Leotz, Orisoain, Oloritz, Puiu eta Untzue) Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko ikastetxera adskribatuko bali-

ra, aurreikuspenen arabera, guztira 9-10 talde izanen lirake bertan, 11 izatera iristea baztertu gabe. Horrenbestez, gutxien-gutxienez, ohiko ikasgela bat eta laguntzako espazio bat faltako lirake bertan; are, ohiko hiru ikasgela eta laguntzako ikasgela bat faltatzeko aukera ere egonen litzateke. Eraiki beharreko azalera osoa uneko matrikulazio aurreikuspenak aintzat hartuta kalkulatu beharko litzateke, egungo zenbait espazioen eraldaketa aztertuz. Izan ere, ikastetxearen albo-ko esparruan gauzatu beharreko handitzeak ezinbestean eskatzen du beste espazio batzuk ere eraldatzea, ikastetxearen patioa ez kaltetzeko. Horien horrela, beharren programa zehazten den unera arte, ez dago jakiterik handitzeak zer kostu ekonomiko izanen lukeen, ezta aplikatu beharreko irtenbide arkitektoniko zehatza zein izan beharko litzakeen ere.

Gainera, eraikinak ez du ez IkasNova ikasgelarik ez hezkuntza bereziko azpiegitura espezifikorik ere, ikastetxea handituz gero beharren programara gehitu beharko lirakekeenak.

Ikastetxeetako erabilera anitzeko espazioen azalera, zentro bakoitzeko matrikulazioaren arabera da. Bada, ikastetxe honen kasuan ere, Departamentuak matrikulazioaren arabera azalera aurreikusten du.

Bestalde, deskribatu berri ditugun matrikulazio aurreikuspenak aintzat hartuta, egungo espazioek ez dute azalera nahikoa ikastetxea eskualdeko ikastetxe bilakatzeko egungo espazioak berrantolatuta.

Jantokiari dagokionez, sukaldeen edo kolektibitateen jantokien neurri buruzko indarreko araudia udal-ordenantzek ezartzen dute, eta, beraz, ez

dago araudi bakar bat. Araudiak ezartzen duenez, langileek baldintza ergonomiko onargarrietan egin behar dute lan, euren segurtasunerako eta osasunerako arriskurik gabe. Horretarako, langile bakoitzarentzat gutxieneko espazio bat ezartzen du araudiak lanean, segurtasuneko eta higieneko arauak oinarri hartuta; espazio hori, espazio erabilgarriko 2 metro koadrokoa eta espazio libreko 10 metro koadrokoa da 486/1997 Errege Dekretuaren arabera, eta sukaldean lan-giro segurua, eraginkorra eta osasungarria sortzeko ezarrita dago, langile bakoitzarentzat gutxieneko espazio horizontala zein bertikala aintzat hartuta. Sukalde txikietan, igartzeko edo laneko guneetako gutxieneko zabalera 80 zentimetrokoa izan behar du, eta, gomendatzen da, nahikoa leku badago, gutxienez 1,20 metroko tartea izatea bi pertsonak elkarrekin lan egin ahal izateko. Gutxieneko altuera 2,5 metrokoa da jantokian eta sukaldean, eta 2,30 metrokoa komunetan eta aldageletan.

Kolektibitate baten sukaldean eta jantokian guneen azalera kalkulatzeko, gune funtzional bakoitzean beharrezkoak diren metro koadroak hartu behar dira aintzat, jankide kopurua, zerbitzu mota eta establezimenduaren edukiera kontuan izanda. Gainera, formulak eta kontsiderazio espezifikoa aplikatu behar dira zenbait gunetan, adibidez elikagaiak jasotzeko, biltzeko, prestatzeko, egosteko, garbitzeko eta zerbitzatzeko guneetan. Berdina gertatzen da sukalondoan, komunetan eta aldageletan ere. Horrenbestez, lokalaren dimentsioek ahalbidetu behar dute langileek segurtasunerako eta osasunerako arriskurik gabe eta baldintza ergonomiko onargarrietan lan egitea. Sukaldearen banaketak honako gune hauek hartu behar ditu aintzat:

Sukalondoa kolektibitateen sukalde batean: ez dago era esplizituan ezarrita inolako gutxieneko tamainarik araudi orokor batean. Aldiz, zenbait irizpide orokor eta gomendio aplikatu daitezke elikagaien higieneko eta segurtasuneko eta lan arriskuen prebentzioko araudian oinarrituta, bai eta laneko espazioen dimentsio praktikoetan ere. Aintzat hartu beharreko kontsiderazio orokorrak honako hauek dira:

- Lan espazioa: elikagaiak prestatzeko gunea ez izan arren, sukalondoak ere era erosoan eta seguruan lan egitea ahalbidetu behar die langileei. Horrek esan nahi du nahikoa espazio izan behar dutela mugitzeko, beharrezko tresna eta ekipoa hartzeko, eta zereginak estropezu egiteko edo kolpatzeko arriskurik gabe egiteko.

- Ergonomia: laneko mahaien altuera, hankentzako espazio librea egotea eta argiztapena ego-

kia izatea bezalako arlo ergonomikoak hartu behar dira aintzat.

- Segurtasuna: guneak behar bezala argiztatu eta aireztatuta izan behar du, garbitzen eta desinfektatzen errazak diren azalera izan behar ditu, eta elikagaien higieneko eta segurtasuneko baldintzak bete behar ditu.

- Gomendatutako dimentsioak:

- Gutxieneko azalera: ezarritako gutxieneko azalera ez badago ere, sukalondoak gutxienez pertsonako 2 metro koadro izatea gomendatzen da lan espazio egoki bat bermatzeko. Laneko espazioen zabalera:

laneko gunearen zabalera, mahaiak eta igartzeko espazioak aintzat hartuta, 80 zentimetrokoa baino gutxiagokoa izatea gomendatzen da.

- Elementuen arteko distantzia: garrantzitsua da mahaien, ahulkien eta sukalondoko elementuen artean mugitzeko nahikoa espazio izatea, gutxienez metro batekoa.

- Altuera: laneko mahaien altuerak egin beharreko zereginentzat egokia izan behar du, eta sukaldeko sabaiaren gutxieneko altuera 2,50 metrokoa izan ohi da. Hori bai, zenbait udalek lurretik sabaira 2,80 metro izateko betebeharra ezartzen dute.

Laburbilduz, gutxieneko tamaina espezifikorik ezarrita ez dagoen arren, gomendatzen da kolektibitateen sukalde bateko sukalondoan era erosoan, seguruan eta ergonomikoan lan egiteko moduko espazio bat ziurtatzea, aintzat hartuta pertsonako, laneko guneen zabalera eta elementuen arteko distantziako gutxieneko azalaren gomendioak, bai eta elikagaien higieneko eta segurtasuneko eta lan arriskuen prebentzioko araudia ere.

Hona hemen kontuan hartu beharreko araudia:

1. Elikagaien higiena eta segurtasuna:

- 852/2004 (EB) Erregelamenduak, elikagaien higienari buruzkoak, instalazioei, ekipoei eta elikagaien manipulazioari buruzko baldintza orokorrak ezartzen ditu, sukalondoari ere aplikatzen zaizkionak.

- 3484/2000 Errege Dekretua, prestatutako janariak egiteko, banatzeko eta merkaturatzeko higiena arauak ezartzen dituena (2001eko urtarrilaren 12ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratua).

- 1021/2022 Errege Dekretua, elikagaien ekoizpeneko eta merkaturatzeko higiena baldintzei buruzkoa.

2. Lan-arriskuen prebentzioa:

- Laneko arriskuen prebentzioko araudiak ezartzen duenez (31/1995 Legea), derrigorrezkoa da lan-baldintza seguru eta osasungarriak bermatzea, laneko espazioa ere barne hartuta.

3. Laneko segurtasuna eta osasuna:

- 486/1997 Errege Dekretuak ezartzen ditu segurtasuneko, osasuneko eta irisgarritasuneko gutxienezko xedapenak lantokietan, sukaldeak ere barne hartuta.

4. Hiri-altzariak:

- UNE-EN 1116:201 araua.

5. Legedia autonomikoa:

- 311/1997 Foru Dekretua, urriaren 27koa, Nafarroako Foru Komunitatean elikadura arloko jarduera, industria edo establezimenduen funtzionamendurako osasun baimena erregulatzen duena.

- Barasoingo elikagaien higieneko udal-ordenantza, janaria zerbitzatzen espezializatutako askotariko establezimenduek bete behar dutena jantokietan, terrazetan eta beste. Azalera zehatzak espezifikatzen ez baditu ere, udal-ordenantzaren helburua establezimenduek bete beharreko higieneko eta osasungarritasuneko baldintzak ezartzea da.

- Barasoingo udalaren hirigintzako araua janaria zerbitzatzen duten establezimendu publikoentzat (jate txikiak, kolektibitateak, tabernak eta beste).

6. Bestelako araudiak: suteak itzaltzekoa, erauzte eta aireztapeneko, gasaren gainekoa, elektrizitate eta argiztapeneko, iturgintza eta saneamendukoa, eta hozteko instalazioena.

Azalera totalari dagokionez, egungo espazioa ez da nahikoa eskualdeko zerbitzua emateko, 37 metro koadro bakarrik baititu eta ez baita aski ikasle guztiak hartzeko. Espazioaren kalkulua 100 jantokideko jantoki baterako egin da (hori litzateke ikasle kopurua ikastetxea eskualdekoa bilakatuko balitz, AG eredu 43 ikasle eta D eredu 46 hartu beharko bailituzke, hau da, 89 ikasle guztira).

Jantoki kolektibo bat antolatzeak eskatzen du aintzat hartzea bai eskuragarri dagoen espazioa bai jantokideen erosotasuna. Mahaietan eseritako jantokide batek metro koadro bat hartzen du gutxi gorabehera. Horrez gain, beste 20 zentimetro koadro ere gehitu behar dira igarotzeko lekua, altzari osagarriak eta zona komunak bezalako aldagaiengandik; horrenbestez, jantokide bakoitzak betetzen

duen batez besteko espazioa 1,20 metro koadrokoa litzateke.

Datu horiek eskuan, jantokiaren edukiera kalkulatu dezakegu, aintzat hartuta ezarrita dagoela lokalaren % 60 jantokira bideratu behar dela eta gainontzeko % 40a sukaldara (jantokiko balitz); aipatu banaketa funtsezkoa da eragozpenik gabeko funtzionamendu arina bermatzeko.

Honako hau da aplikatzen den formula: Edukiera fisikoa = zerbitzua emateko erabilgarri dagoen metro koadro kopurua/1,20 metro koadro jantokide bakoitzarentzat. Aintzat hartuta jantokia 100 jantokidetzat dela eta bakoitzak 1,20 metro koadro hartzen dituela, jantokiak 120 metro koadro izan beharko lituzke (lokalaren % 60). Mahaiaren inguruan gutxienez 90 eta 120 zentimetro arteko espazioa izatea gomendatzen da, pertsonak arazorik gabe esertzeko eta zutitzea. Pertsona bakoitzak behar duen espazioak 60 zentimetro luze eta 40 zentimetro zabal izan behar du gutxi gorabehera, jantokideen arteko banaketarako zentimetro gehigarri batzuk gehituta.

- Jantoki zerbitzua (beste leku batean prestatutako eta ikastetxera garraiatutako janari beroa): jantokiaren alboko guneetan kokatu beharko lirateke sukaldondoa (pertsonako 2 metro koadro izan behar ditu gutxienez, baina gomendatzen da gutxienez 5 metro koadrokoa izatea) eta jantokiko eta sukaldondoko langileentzako komunak eta aldagelak (3 metro koadro komun eta 2 metro koadro aldagela langileko). Horrenbestez, jantokiaren 120 metro koadroko espazioari sukaldondoa, komunak eta aldagelak jartzeko azalera gehitu beharko litzaioke.

- Jantoki zerbitzua (sukaldea ikastetxean bertan): janaria prestatu eta kozinatzeo sukaldearen alboko guneetan kokatu beharko lirateke jakiak jasotzeko, biltegitzeko eta garbitzeko guneak, jantokia, eta sukaldeko, jantokiko eta sukaldondoko langileentzako garbigelak eta aldagelak (3 metro koadro komun eta 2 metro koadro aldagela langileko). Horrenbestez, sukaldearen 80 metro koadroko espazioari (lokalaren % 40), jantokia, komunak eta aldagelak jartzeko azalera gehitu beharko litzaioke.

Jantoki zerbitzu motari dagokionez, nabarmendu behar da helburua Hezkuntza Departamentuak kudeatutako eskualdeko ikastetxeetako jantoki guztiak sukaldea ikastetxean bertan izatea dela. Hau da, elikagaiak kontsumitzen diren lekuan bertan prestatzea eta kozinatzea, uste baitugu eredu horrek honako abantaila hauek dituela janaria beste leku batean prestatu eta ikastetxera bero garraiatzearen alloan:

- Freskotasuna eta kalitatea: elikagaiak uanean bertan kozinatzean, sasoiko jaki freskoak erabil daitezke, eta, ondorioz, kalitate eta zapore hobea-goko platerak lortu.

- Ekoizpenaren kontrola: prestatutako janari kopurua eskaerara hobeto egokitzea posible da, elikagaiak alferrik galtzea saihestuz eta baliabideen kudeaketa optimizatuz. Gainera, jankide guztiek janaria bero eta garaiz jasotzea bermatzen da.

- Malgutasun handiagoa eta menuaren personalizazioa: menua behar espezifikoetara egokitzea errazten du, adibidez dietan ezarritako murrizpenak edo lehentasun kulturalak aintzat hartuta. Gainera, aukera askotarikoagoak eskain daitezke.

- Esperientzia sentsoriala: elikagaien usaina, testura, zaporeak eta tenperatura hobeto mantentzen dira prestatzen diren unetik kontsumitzen diren arte. Gainera, jankideen lehentasunetara egokitu daitezke.

- Elikadura-segurtasuna: sukaldea ikastetxean bertan izanda elikagaien higienaren eta segurtasunaren gaineko kontrola areagotzen da, kutsadura arriskua murriztuz.

- Esperientzia gastronomiko hobea: prestatu berri diren elikagaiez gozatzeko aukerak, zapore eta testura egokiko jakiak eskuratuz, jankideen esperientzia gastronomikoa hobetzen du.

- Kostuen murrizketa: ikastetxean langile gehiago behar izatea posible den arren, luzera ekonomikoagoa izan daiteke prozesuaren optimizazioagatik eta hondakin kopurua murrizteagatik.

Ildo beretik, janaria beste leku batean prestatu eta ikastetxera bero garraiatzeak honako desabantaila hauek ditu:

- Kalitate galera: elikagaiek, oso tenperatura altuetan kozinatu eta garraiatzean, zaporea, testura eta nutrienteak gal ditzakete.

- Kontrol txikiagoa: jakiak prestatzen eta kontsumitzen diren lekuen arteko distantziak zaildu egiten du gorabeherei aurre egitea edo eskari bereziei erantzutea.

- Kutsadura arrisku handiagoa: neurri egokiak hartzen ez badira, jakiak tenperatura handietan manipulatu eta garraiatzeak kutsadura arriskua areagotu dezake.

- Menua pertsonalizatzeko zailtasun handiagoa: menua jankideen behar indibidualetara egokitzea zailagoa izan daiteke janaria beste leku batean prestatu eta ikastetxera bero garraiatzen denean.

Hezkuntza Departamentua lanean ari da eskualdeko ikastetxeetako jantokiak osasungarriak izan daitezen, eta, horretarako, funtsezkotzat jotzen da zenbait arlo lantzea, tartean elikagaien kalitatea, langileen prestakuntza, giro atsegina sortzea eta elikadura-hezkuntza. Arlo horiek guztiak landuta, ikastetxeko jantokia leku osasungarri eta jasangarri bilakatu daiteke, jankideen ongizate fisikoa, emozionala eta soziala hobetzen lagunduko duena. Horregatik, helburua eskualdeko ikastetxe guztietako jantokiek sukaldea bertan izatea da, kalitate nutrizionala bultzatzeko eta zerbitzatutako menu guztien gaineko kontrola hobetzeko.

Honako hau da aplikatu beharreko araudia:

- 58/2024 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola-jantokiak.

- 17/2011 Legea, uztailaren 5ekoa, elikadura-segurtasunari eta nutrizioari buruzkoa.

- 315/2025 Errege Dekretua, apirilaren 15ekoa, zeinaren bidez ezartzen baitira uztailaren 5eko 17/2011 Legea, elikagaien-segurtasunari eta nutrizioari buruzkoa, garatzeko arauak, ikastetxeetan elikadura osasungarria eta jasangarria sustatzeko.

Azaldutako guztia aintzat hartuta, zentroaren egungo azalera ez da nahikoa Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko ikastetxea Orbaibarko udalerrri guztietako ikasleak hartzeko eskualdeko ikastetxe bilakatzeko.

Iruñean, 2025eko uztailaren 24an.

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegi

11-25/PES-00273. Galdera, Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa eta Lehen Hezkuntza egitera Orbaibartik Tafallara joaten diren ikasleen joan-etorri buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Haur Hezkuntzako Bigarren Zikloa eta Lehen Hezkuntza egitera Orbaibartik Tafallara joaten diren ikasleen joan-etorri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioak egindako 11-25/PES -00273 idatzizko galderari erantzunez, honako hau jakinarazten dut Nafarroako Gobernuko Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik:

– 80/2019 Foru Dekretuaren «Ikastetxe publikoen sarearen berrantolamendua» 1. artikuluan (80/2019 Foru Dekretua, uztailaren 3koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxe publikoen sarea berrantolatzen duena), honako hau jasotzen da:

1. Ikastetxe publikoen sarea antolatzen da geografia eta populazio irizpideak oinarri hartuta, Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza sistema behar bezala ematen dela bermatzeko modu gisa, foru dekretu honi gehitutako eranskinean zehazten den bezala.

2. Eskola departamenduen figura ezartzen da ikastetxeen sarea antolatzeko egitura unitate gisa. Horrela, eskola departamenduak sortzen dira, eskola barruti, zona eta eremuetan banatuko direnak, eranskin horretan departamendu bakoitzerako ezarritako banaketaren arabera.

3. Eskola departamendua izanen da geografia eta populazio unitate bat, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza administrazioaren mendeko ikastetxeak –irakaskuntza maila guztietakoak– dituen eta ofizialki dauden hizkuntza-eredu guztiak eskaintzen dituen (A, G eta D ereduak eremu mistoan eta A, B eta D ereduak eremu euskaldunean).

– 2/2006 Lege Organikoak, maiatzaren 3koak, Hezkuntzari buruzkoak, honako hau jasotzen du «Aukera-berdintasuna landa-munduan» 82. artikuluan:

2. Lehen hezkuntzan, hezkuntza-administrazioek doako ikaspostu bat bermatzeko diete ikasle guztiei udalerrian edo ezarritako eskolatzere-eremuan bertan.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa alde batera utzi gabe, oinarriko hezkuntzan, gomendagarritzat jotzen den landa-eremuetan, bizi diren udalerritik hurbil dagoen udalerriri batean eskolatu ahal izango dira haurrak, irakaskuntzaren kalitatea bermatzeko. Kasu horretan, hezkuntza-administrazioek doan emango dituzte garraioko eta, hala badagokio, jangelako eta barnetegiko eskola-zerbitzuak.

Ikasleak ikastetxera garraiatzeko plangintza lekualdatze-denbora ahalik eta laburrena izateko moduan egingo da.

– Nafarroako Estatistika Erakundearen eta Hezkuntza Departamentuaren Tableau eta EDUCA plataformetako datuen arabera, galderan zehaztutako udalerrietako biztanle kopurua egonkorra da 2007tik.

Aldiz, jaiotza kopuruaren joera beheranzkoa da.

	Población																	
	2007	2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
Barasoain	561	602	631	656	645	674	681	676	665	660	650	639	621	613	613	621	602	595
Garinoain	478	480	511	520	518	531	514	495	490	479	456	479	499	498	503	534	523	527
Oloriz	191	176	174	185	183	179	187	191	195	200	198	204	203	204	210	212	221	215
Leoz	273	269	272	272	272	261	258	253	241	243	232	232	220	224	226	220	211	210
Pueyo	317	318	318	339	341	354	354	347	340	339	340	349	351	361	345	333	346	360
Unzué	139	133	134	133	142	142	142	127	124	129	136	137	144	154	160	157	158	163
Orisoain	81	80	82	86	89	89	95	94	92	90	85	79	79	79	87	72	74	72
Valdorba	2.040	2.058	2.122	2.191	2.190	2.230	2.231	2.183	2.147	2.140	2.097	2.119	2.117	2.133	2.144	2.149	2.135	2.150

	Nacimientos																	
	2007		2008	2009	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023
Barasoain	14	4	15	13	3	9	7	8	1	4	6	4	3	3	2	1	3	
Garinoain	1	9	9	8	7	4	4	5	2	3	0	6	4	4	4	5	1	5
Oloriz	1	2	4	3	2	1	1	1	3	2	0	2	1	0	1	0	2	1
Leoz	3	2	4	3	3	2	2	0	1	0	2	0	1	1	0	1	0	0
Pueyo	3	3	0	5	3	3	3	1	2	1	1	2	4	4	5	2	2	1
Unzué	2	1	0	1	0	1	1	0	2	2	1	1	1	1	1	1	1	0
Orisoain	1	0	1	2	0	2	0	1	0	0	0	0	0	0	0	0	0	0
Valdorba	25	21	33	35	18	22	18	16	11	12	10	15	14	13	14	11	7	10

– Aurreikuspenak egitean adskribatutako udal-errietako urteko jaiotza kopurua 2024tik aurrera 9,67koa izanen dela zenbatetsi da; hau da, 2021, 2022 eta 2023 urteetako batez besteko datua hartu da. Matrikulazio-tasak zehazteko, berriz, 0,5eko matrikulazio-indizea ezarri da eredu bakoitzarentzat.

Igarotze-indizeak datu historikoetatik atera dira, eta zenbatetsi da AG ereduari 1,04koa izanen dela eta D ereduari 1koa.

– Ikastetxeak bederatzita talde zituen 2015-2016 ikasturtean. Orditik matrikulazioa jaisten joan da egungo sei taldeetara iritsi arte. Adierazitako kontsiderazioak aintzat hartuta, badirudi kurtso bakoitzeko zazpi talde izanen direla, zortzi izatea ere baztertu ez arren.

Barasoaingo Martín de Azpilcueta HLHIPko ikastetxean, lehen hezkuntzako 5. mailara arte, Garinoaingo 27 ikasle, Barasoaingo hogeita hamar, Olorizko lau, Untzueko lau, Puiuko bi eta Iruñeko bat daude matrikulatuta egun. Guztira, beraz, 58 ikasle dira.

Tafallako Marqués de la Real Defensa HLHIPko ikastetxean, lehen hezkuntzako 5. mailara arte, Leozko ikasle bat, Garinoaingo bi ikasle, Untzueko bost, Olorizko zazpi eta Puiuko hamaika daude matrikulatuta egun. Guztira, beraz, Orbaibarko 26 ikasle dira. Ez dago ziurtasunez zenbatesterik ikasle horietatik zenbatik nahiko duten Barasoaingo HLHIPko ikastetxean ikastea, eta, beraz, taldean aurreikuspenak egitea ez da batere erraza.

Ikasle guztiek Barasoaingo HLHIPko ikastetxera igarotzea erabakiko balute, haur hezkuntzako etapari talde bat gehiago beharko litzateke, eta beste bat haur hezkuntzako AG ereduari. Horrenbestez, 9-10 talde sortu beharko lirateke. Horrek ez luke D ereduko taldeentzat aurreikusitako azpiegituretan eraginik izanen, aintzat hartu beharko litzatekeen arren haur hezkuntzako taldea baimendutako gehieneko 14ko ratioan izanen litzatekeela hiru mailako haurrak aintzat hartuta. Horrenbestez, ez litzateke baztertu behar beste talde bat gehiago sortzeko aukera, 11 taldeetara helduz.

– Eskola-mapan aldaketaren bat izaten den datan dagoeneko ikastetxe batean matrikulatuta dauden ikasleek, eskubidea dute lehen hezkuntzako etapa osoa ikastetxe horretan amaitzeko.

– «Eskualdeko ikastetxe» kontzeptua independentea da ikastetxea osatzen duten unitateetatik, bai eta ikastetxeak hezkuntza-eskaintzan duen eredu kopurutik ere.

– Talde bakar batean zenbait mailako ikasleak batzeko muga, 41/2025 Foru Aginduan argitaratutako «Ekitatean eta hezkuntza-kalitatean aurrera egiteko ituna» dokumentuan zehaztutakoa da. Aipatu Hezkuntza kontseilariaren maiatzaren 13ko 41/2025 Foru Aginduak, landa eskolako eskolatze ratioak ezartzen ditu.

Iruñean, 2025eko uztailaren 22an

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

11-25/PES-00274. Galdera, Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko zerbitzu osagarri buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eneka Maiz Ulaiar andreak Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko zerbitzu osagarri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2025eko ekainaren 27ko 85. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2025eko uztailaren 23an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentariari atxikitako foru parlamentari Eneka Maiz Ulaiar andreak 11-25-PES-00274 idatzizko galdera egin zuen. Bada, Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilaria naizen aldetik, honako hau jakinarazten dut egindako galderei erantzunez:

Galdera: Nola aldatuko litzateke Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko jantokiaren kudeaketa, eskualdekoa balitz?

Erantzuna: Eskualdeko jantokiak izendatzeko modua 58/2024 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta hirugarren xedapen gehigarrian arautzen da (58/2024 Foru Dekretua, maiatzaren 29koa, zeinaren bidez arautzen baitira Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publikoetako eskola jantokiak).

Dituzten ezaugarri bereziak tarteko eskualdeko jantoki izendatu daitezkeen eskola jantoki arruntentzat dago araututa prozedura hori, betiere alde aurretik Hezkuntza Departamentuak azterlan bat egin eta gero, 2026-2027 ikasturtea hasi baino lehen amaituta egon behar dena.

Eskola jantoki bat eskualdeko jantoki izendatzeak, zuzenean eragiten du jantokiaren titulartasuna eta kudeaketa ikastetxeko guraso elkartetik Hezkuntza Departamentura igarotzea.

Galdera: Ekonomikoki, nola eraginen lieke aldaketa horrek eguneroko menuaren prezioari eta familien ekarpenari? Zer gertatuko litzateke jantokiko bekekin?

Erantzuna: Eskualdeko jantoki izatera igarotzean, zerbitzua kontratazio publikoko prozedura

ireki bidez lizitatu beharko litzateke, eta, ondorioz, menuaren prezioa aldatu egingen litzateke.

Jantokiko laguntzei dagokienez ere aldaketak egonen lirateke: egun jantoki arruntetako dirulaguntza jasotzen duten ikasleek eguneko 5,2 euro jasotzen dituzten bitartean, aurrerantzean eguneko 2 euroko kuota finkoa ordaindu beharko lukete, eta zerbitzuaren prezioaren gainontzeko zatia Hezkuntza Departamentuak hartuko luke bere gain. Bestalde, dirulaguntza jasotzen ez duten ikasleek kasuan, 2025/2026 ikasturterako ezarritakoaren arabera, eguneko gehieneko 7 euroko kuota aplikatuko litzateke.

Galdera: Nola aldatuko litzateke Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko eskola-garraioaren zerbitzua, eskualdekoa balitz?

Erantzuna: Orbaibarko eskola-garraioko zerbitzuko ibilbidearen azken geltokia Barasoain izanen litzateke eta ez Tafalla.

Galdera: Erabil al litezke Barasoaindik igarotzen diren egungo eskola-garraioko lineak?

Erantzuna: Bai, eragindako ikasleentzat autobus bat eta taxi bat mantentzeko aukera izanen litzateke.

Azkenik, aintzat hartu behar da Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzuko Zuzendaritzak Barasoingo Martín de Azpilcueta HLHIPko ikastetxeko haur eta lehen hezkuntzako espazioen gainean egindako 2025eko urtarrilaren 10eko txostenaren arabera, eskualdeko ikastetxeak ez lituzkeela izanen otsailaren 12ko 132/2010 Errege Dekretuan eskatutako gutxienezko espazioak. Zehazki, zortzi taldeko matrikulazio bat hartzeko, laguntzako espazio bat faltako luke ikastetxeak.

Bestalde, aintzat hartu beharko litzateke ikastetxea eskualdeko ikastetxe izatera igaroko balitz, jantoki zerbitzua Hezkuntza Departamentuaren mende geratuko litzatekeela. Horrela izanez gero, jantokiaren espazioa (37,03 metro koadro) ez litzateke nahikoa aurreikusitako ikasle kopurua hartzeko (AG eredu 43 eta D eredu 46, hau da, 86 ikasle guztira). Arazo bera izanen litzateke sukailondoarekin ere, nabarmen handitu beharko litzatekeena. Horrenbestez, eraikineko beste espazio bat okupatu beharko litzateke gutxienez, egun ikastetxeak eskuragarri dituen espazioen kaltetan. Ondorioz, ez litzateke beteko 132/2010 Errege Dekretuan ezarritakoa eskuragarri izan beharreko

gutxieneko espazioen gainean. Era berean, Hezkuntza Departamentua eskualdeko ikastetxeetako jantoki guztietako sukaldeak eraldatzen ari da progresiboki uneotan, jantokiek sukaldea ikastetxean bertan izateko eta janaria bertan prestatzeko. Bada, aztertzen ari garen kasuan, eraldaketa hori egin ahal izateko, egungo sukalondoak duena baino espazio askoz handiagoa behar da.

Azkenik, zentroak ez du ez IkasNova ikasgelarik ez hezkuntza bereziko azpiegiturarik ere.

Hori jakinarazten da behar diren ondorioak izan ditzan.

Iruñean, 2025eko uztailaren 21ean

Hezkuntzako kontseilaria: Carlos Gimeno Gurpegui

